



33
IZTAVETA' REN OLERKIAK

IZTAVETA' REN OLERKIAK



JOSE GARMENDIA ARRUEBARRENA





KARDABERAZ BILDUMA - 33

IZTUETA'REN OLERKIAK

JOSE CARMENDIA ARRUEBARRENA

*Itz-aurrea: Lekuona' tar On Manuel
Sarrera'ren eta oarra'ren euskal-zaltea:
Baztarrika' tar Joshe Mari*

IZTUETA'REN OLERKIAK

José Garmendia Arruebarrena




KARDABERAZ BILDUMA

33



Autor: José Garmendia Arruebarrena
Edita: Librería Técnicas de Difusión - Tolosa
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal: V1 227 - 1978
I. S. B. N. 84-85416-02-3



IZTUETA, según el cuadro original de G. Hombrados Oñativia,
en el Salón Capitular del Ayuntamiento de Zaldivia.

EGILLEAREN EZAUGARRIAK

Liburu onen egillea Zaldibi'ko errian jaio zan 1925 urtean. Gazteiz'en apaizturik Erroman zabaldu zituan bere ikasketak.

Joan diraneko urte askotan Andaluzi'ko lurraldeetan dabill mixolaritzan giza-mailla mota guztietan.

Sevilla'ko "Hernando Colón" Ikastetxe Nagusian kapellau izan da. Ta Utrera'ko "Ruiz Gijón" Ikastetxean Erlijioiko irakasle.

Donosti'ko "La Voz de España" ta "Diario Vasco" egunkarietan lankide da, ta beroietan eusko ta erlijio gaietaz idazten du. Sevilla'ko "ABC"n ere asko idatzi du "Euskaldunak Sevillan" gaiaz.

"La Real Sociedad Bascongada de Amigos del País"en bazkide da; ta onen aldizkarian askotan idazten du.

Joan Inazio Iztueta'ren eriotzaren eun-urtea zala-ta, 1945 urtean Pantxo Labayen'ekin batean, omenaldi bero bat eratu zion gure folklore edo erri-jakintza zaleari Zaldibi'n. Ta Iztueta jaio zala bereun urte bete ziranean, ogei ta amar idazki ta geyago idatzi zituan Donosti'ko agerkarietan.

"Obras Inéditas de Iztueta" liburuaren egillea da. (La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1968). Lan berezi batzuen ere bai...



Egilleak aurreneko aldiz biltzen ditu liburu ontan gureganaiño iritxi diran Iztueta'ren bertso ta olerki guztiak. Asko Bilbao'n billatu ta arkitu ditu.

Zalantzarik gabe, Manuel Lekuona jaunak itz-aurrean dion bezela, liburu onek asko lagunduko du Zaldibi'ko gure folklore edo erri-jakintza zalearen nortasuna obeto ezagutzen. Ainbeste alderdi dituan Joan Inazio Iztueta'ren nortasun aberatsal

* * *

Desde Valladolid y con fecha de 14 de septiembre de 1842, el cuáquero Luis Usoz del Río envió una carta al Sr. Conde de Gräber de Heruso, sobre Iztueta. Entre otras noticias, promete enviarle los versos, "si Usted quiere le enviaré manuscritos, pues nunca los imprimió Iztueta". Aquí los tienes, lector.

*Apaiz ospetsua eta Euskal Errian
maisua argia dan, gauza askotan,
batez ere erriko bertso-bideetan,
On Manuel Lekuona'tar jaunari
Iztueta'ren Olerkiak omenaldian,
eskeintzen dizkiot gaur pozgarri.*

J. G. A.

ITZ - A U R R E A

Oso egoki etorriko da, euskal-literaturaren Historiarako Liburu onen gaurko argitaltzea. "IZTUETA'REN OLERKIAK".

Iztueta, dantzari bezela da, batez ere, ezaguna, eta baita Kondairazale bezela ere. Bañan Kondairazale bezela egin zuan prosa bera ere, eta baita Dantzaetaz argitaldu zituan Musikak berak ere, danok, Olerkiz apainduak eman zizkigun. Aren idaz-lan guztietan azaltzen zaigun arnas-giro guzia, Olerki-giroa da.

Iztueta'ren nortasuna ezagutzeko, beraz, oso bearrezko gauza da, Iztueta'ren olerkaritza ezagutzea. Olerkaritza, naiko berezia. Eta orain arte bear bezela aztertu gabea.

Alako garaian bizi izatea egokitu zitzaion, izan ere-ta: bi Prantzesteren eta bi gerrate zibilen barru-barruan: Konbentzionalen Prantzestea (1794-1796) eta Napoleon'en Prantzestea (1808-1813) eta Erregalistaen gerrate zibila (1820-1822) eta Lenengo Karlistatea (1833-1839).

Naspil askotxoko urte-aldia, gizon baten Historia argi-ezagutzeko...

Ala ere, gure gizonarentzat, naspil-artean bazan ere, naiko Literatur-lan egindako urte-aldia.

* * *

Olerki-soroan Iztueta'k egindako lana, Liburu ontan azaltzen da naiko argi. Orregatik bait da Liburu au, dan bezain ondo etorria gaur.

Gañerakoan uste bait det nik, Iztueta, Olerki-alorrean zerbait sortzalle, kreatzalle ere izan zitzaigula. Eta ori adieraztera iritxi nai nuke nik, ain zuzen, eta batipat, Aurre-itx Prologo ontan. Gauza aundirik ez, bañan bai zerbait gauza jakingarri.

* * *

Lenengo, beintzat, esan dezagun, Iztueta'ren lanak bi alderdi dituela: 1) bertsolari-alderdia, bertsolari jator; bañan baita 2) olerkari-alder-

dia ere, "olerkari poeta" esan litekean sail ortakoa... Salbo-ta, gero, Bilintx izango zan bezela, izan genduala gure Iztueta: bertsolari eta olerkari; bertsolari, aozko literatur-zale, eta olerkari, idatzizko literatur-zale. Bi bideak ezagutu ta praktikatu ere zituana, alegia.

* * *

Olerkari bezela, Iztueta etzan izan beste munduko gauza. Bañan, ori bai, gai ortan ere asko ageri izaten zitzaion bere beste alderdia, bertsolari-alderdia. Nolanai dala, itz-neurtua oso ondo ta "aire ta bote" esan oi dan bezela, erabiltzen zuan.

Pentsaera beti ere naiko gorea, naiko "goititua", gauza bera biribiltzen "luze-antxa" ezik; erderaz "reiterativo-xamarra" esango litzakena; imajina, beratsuak erabiltzen zituala, alegia, batez, ere tematika beretsuko lanetan: Gipuzkoa'ren goralmenak kanta bear zituanean, adibidez.

* * *

Iztuetaren bertsolari-alorrean, eredu bat artu-ko degu guk emen, benetan eredu bezela artu ditekeana: "Kontzezi'ri" edo "Maite bat maitatzen det maitagarria". Eta eredu ortan, beste gauza geiago ere bai, bañan batez ere "puntu-jokua", "rima-jokua" esango gendukeana da gauza ezagungarri-ezagungarria ta benetan nabarmena. Iztueta'k garrantzi berezi-berezi bat ematen dio, rimari, puntuari; eta rimaganako duan itzal eta iritzi aundiak olerki-estilo, bereziki "iztueta" bat, sorrerazten dio.

* * *

RIMA, PUNTUA

Rimak, puntuak euskal-bertsolaritzan garrantzi aundia izan duala, z dago bi aldiz esan bearrik. Rima bere izatez axaleko gauza dan arren—erderaz gauza "adjetiboa" esan diteken zerbait dan arren—kopla zaarretan, inoiz, axal ez baño mami izateraño garrantzia ematen zaio—erderaz "sustantiboa" esango litzakeana, alegia—. Oroi gure Kopla-diako "izarra", "lizarra" ta "bizarra" alkarrekin ain estu alkartzen di-

tuan izaera, azala mami biurtzen duan izaera, alegia, euskal-Literaturan ain jator bizi dana...

Iztueta'ren eskuetan, rima, askotan, ustekabe sortzen da; ideiaz ustekabe, sorpresan, bañan ain Iztueta'ren gogora ta gustora, berak airoski jarraitzen bait dio rima berari, salbo-ta pelotariak pelota "aire ta bote" erabiltzen duten bezela.

Ikus, ain zuzen, "Kontzezi'ri"ren lenengo bertsoa:

"begi ederra du, ta guztiz argia;
daukat urruti;
bañan ezin kendu det buruti
aren itxura;
saldu al baliteke pixura,
urrearen truke
nork erosi faltako ez luke.

Puntuaren, rimaren indarra dabil or aire-ta-bote, ain egoki.

Eta ez bait da "Kontzezi'rirenean" bakarrik. Ikus, arako beste "Ezkonberrien" bertsoa sake polit ura:

Ezkonberriak pozkidaz daude
egin diralako gaur elkarren jabe
Elizan;
gauza ederragorik ezin izan.
Ai! orain banengo ni zuen ditxan!

Begira baita beste au ere, Iztueta'ren arte onen eredu:

Geldi, geldi, geldi
Berdillari'ri;
erabil konpasa,
ez dakion pasa.
Martin'ek ba daki
nola erabaki
aren zortzikoa:
ez du lendabizikoa.

Ageri dan bezela, rima-joku ortan benetan maisu da gure Iztueta. Puntuaren, rimaren bapatasun azkar ortan, alegia.

Iztueta'k joku ori, sistema bezela, eskola bezela erabiltzen bait du; eta ori esan nai nuke nik: joku bizkor ori, gure Iztueta'ren eskola ta sistema berezia dala. Puntuari bere barruko muin ori, orren bapatean, orren jarraitu-jarraituan ateratzea, alegia. Beste bertsolariak puntua geienetan bi errenkadaz bein erabiltzen duten bezela, berak segi ta jarrai-jarraituan erabiltzea, alegia.

Ikus, eredu, beste au:

Atsegiñetan arkitzen naiz ni
arkitzen naiz ni,
ezkontzen diralako maite gozo bi
gustora;
ortako jaio ziran mundura;
Gipuzkoa guztia txit poztu da.

Edo-ta beste au:

Gaur ezpatadantzari,
aurren-azkendari,
Korpus ta San Joan
dituztela gogoan,
zaldibitarrak,
gazte ta zarrak,
oi dabilta dantzan
beren Erriko plazan.

* * *

RITMOA

Eta zer esan Iztueta'ren ritmoetaz?

Iztueta'k eta Bilintx'ek, besteak beste, gauza au egin zuten biok berdin: beren bertsoak kantatzeko, doñu zaarrez gainera, doñu berriak ere aukeratu zituztela: Bilintx'ek Santesteban'en "Urra, papito" bere "Juana Bixenta Olabe"rentzat, eta Iztueta'k, orduan kalerik-kale kantatzen zan "Churruapanpli" izenekoa kanta, bere "Kontzezi'ri"rentzat. Gero, beste bertsolariaren batzuek ere erabili bait zuten doñu ori —lenengo Karlitatean, adibidez— beren bertso-paperetan. Gure Iztueta'k, ordea,

iñork baño leenago: 1806'gn urte-inguruan, Logroño'ko Inkisizioaren kartzelan egin bait-zuan bere lana, eta andik laister samar banatu bertso-paperetan, eta bereziki 1825'gnean, norbaitek Londres'en argitaldu liburu batean, gure onen egilleak adierazten digunez.

* * *

Ritmoari buruz, gogora dezagun berriro ere "Kontzezi'ri"ren lenengo bertsoa:

Maite bat maitatzen det maitagarria;
begia ederra du, guztiz argia.
daukat urruti;
bañan ezin det kendu buruti
aren itxura;
saldu al baliteke pixura,
urrearen truke
nork erosi faltako ez luke.

Gauza bitxi asko señala litezke bertso ontan; leen aipatu ditugu bertsoaren rimak: urruti, buruti; itxura, pixura adibidez... Bañan nerretzat oso gauza bitxia, tarte ortan dabilen ritmo-jokua da: erderaz "pie quebrado" esan oi dana. Guk "oin errena" esaten bait diogu. Oin errena. Joku orrek bertsoaren ritmoa eten egiten bait du. Ibillia eten, eta, leen esan degun bezela, puntu rima berriak sarrerazi.

Geienean erabiltzen ditugun bertsoetan, ritmoa ta rima, asi ta buka, beti berak izan oi dira bertsoaren barruan. Bañan Iztueta'ren ontan ez da ola.

Puntu-aldatze orrek eta ritmoaren aldatze onek, astindu bat ematen dio bertsoari; eta betiko puntuak eta betiko ritmoak ematen digun logale-antxa astindu guri. Eta orixe da "oin errenaren" egitekoa bertsolarietan.

Eta gauza onen osagarri, eta leen aipatutako pelotariaren irudiari jarraituaz, esan bait liteke beste au ere; bertsolarietan geienetan erabiltzen dan kanta-eran, bertsolaria, pelota-jokoan beti ere pelota, lasai, atzera botatzen duan pelotariaren antzekoa dala; bañan oin errenarekiko kanta-eran, bertsolariak aurre-jokua egiten duala, eta oin erren bat kantatzen duanean, pelota atzera bearrean, aurrean ziplora botatzen duala,

edo-ta —Atano baten antzera— aurrean "utzi-dejada" bat egiten duela; sorpresa-jokua...

* * *

"Oin errena" esate ori nundikan datorren, esan dezagun orain.

Txalapartan, jotzalle batek, eten gabe, beti pausu berean ari duan arierari, tukutuna esaten zaio; eta beste jotzalleak tartean jotzen duanari, berriz, errena esan oi zaio; errena, kojoa, alegia, "pie quebrado", ots, konpasaren kontra dabilen oiña, pausoa...

(Oyarizun'en, toberajotzalleen artean, tukutunari, biya esaten zaio, eta errenari, "pikatzellea". Gure arirako, guk egokiago degu errena).

* * *

Bukatzeko, ikustagun berriro, "Kontzezi'ri"ren lenengo bertsoa, angu iru oin errenak azter ditzagun. Bere ritmoan ikusiko degu. Begira:

Maite bat / maitatzen / det mai/tagarri/a;

begia / du ede/rra guz/tiz argi/a.

Dau/kat urru/ti;

bañan e/zin kendu / det buru/ti

a/ren itxu/ra;

saldu al / balite/ke pixu/ra,

u/rrearen tru/ke

nork ero/si falta/ko ez lu/ke.

"Daukat urruti" "aren itxura" eta "urrearen truke", iru "oin erren". Irurok bertsoari ematen dioten grazia, ez da esaten errez. Grazi ori, orde, ez bait dago rimaren pelota-jokoan bakarrik. Ritmoak ere laguntzen dio eta ez gutxi, iru oin erren oien bitartez.

Ritmo daktiliko-daktilikoan, lenengo bi errenkadak pentapodtoak dira, ots, bostna oiñekoak. Laugarrena, seigarrena ta zortzigarrena, berriz, launa oiñekoak. Iru oin errenak, biña oiñekoak, bañan asieran anakru-sis bana dutela. Errenkada bakoitzaren bukaerak, oin trinkotu zorrotzak dira.

Bukatzeko, esan dezagun aizkenik, gure Ixtuetak ezagutzen zuala, baita, gero "Betroiarena" eta "Prantxisku, zer dakarrek?" esango ziztaion zortzi edo bederatzi puntuko bertso famatua ere.

Ikus eredu bat, zortzi puntukoa: tripodio daktilikoa; bukaera-aldean puntu-sail luzeduna.

Arruiz'ko balleko
koplari berria:
goi-goieneko mallan
ago jarria,
lurreratu naye
agure elbarria;
nere urte-joanaz
nai baduk balia,
para juzkaria,
naiz predikaria,
errain dik egia
zeñengan gelditzen dan
jakinduria.

Oyarizun'en, 1977'gn Ekaiña'ren 14, San Antonio biaramona,

LEKUONA zaarrak.

Bizitza bat laburki

Breve biografía

"Sinistatu bearnazu berroquei egun igaroetan ez dezana izan lo pizcabat eguiteco dui bat asti ere, cergaitic izan deran eracutzi bearra 50 Espata dantzari-reguin, 25 motil gastechori, anciñaraco cantia urritarrac...

Oizaz gañera izan det gauric gucienac galdu biarra Euzcarazco itz neurtu eta beste itzquida anitz eguiten".

(Izuetak Paulo Ulibarri-co Yaunari egin zion eskutizatik 1828garren urtean Garagar illaren 13-an).

Joan Inazio Iztueta'ren bizitza itz gutxitan azaltzea ez da oso lan erreza. Zaldibia'n, 1767'ko azaroaren 29'an, jaio zan Joan Inazio Iztueta jauna. Ta Zaldibin bertan, bere etxe Iztueta-enea'n il zan, 1845'ko abuztuaren 18'an, iya larogei urte zituala. Bizitza luzea benetan. Eta betea. Europa, España ta Euskalerrian, makiña bat gorabera, burruka ta guda izan ziran urteak aiekl Iztueta bera ere ,aruntza ta onera, ederki astinduta ibilli zan denborak.

Joseph Iztueta, Lazkaukoa, ta Maria Inazia Etxeberria, Zaldibikoa, ziran Joan Inazioren gurasoak. 1755'ko, otsaillaren 24'an ezkondu ziran Zaldibian. Arek, 23 urte, ta onek, 18, zituztela. Amabi seme-alaba izan zituzten: 7 mutill eta bost neska. Joan Inazio, bostgarrena zan. Artu-eman aundienak, bere anai zarrenarekin, Diego Inaziorekin, izan zituan Joan Inaziok. Baita Maria Ana, Jose Maria ta Frantzisko Inaziorekin ere.

1783 urtean, jaso zuten Joan Inazio'ren gurasoak, **Iztueta-enea** etxea. Joan Inazio jaio baño len, urte bat aurretik. Onek esan nai du, etzirala izan lastaigille beartsu batzuk, askok esan oi duten bezela, aien beartasuna nabarmendu naiean. 1803'ko epaillaren 2'an, 12.999 "vellon"-errealen balioa ezarri zioten etxeari. 1773'an Joan Inazio'ren aita, Joseph Iztueta, asita zegon aundizki-agiria ateratzen. Ementxe ikusten da, bere arbasoen langintzak ospetsuak zirala. Ta ala zegokien Lazkauko torre-etxetik zetozen ondorengoi. Gaur ere, antxe ikusi leike etxe onen aurrean arrizko armarri aundi bat, aurrekoen aundiaren ezaugarri bat bezela.

Sevilla'ko Indietako artxibo edo agiritegian, Joan Iztuetaren izena arkitzen degu; Lazkaun jaioa, ta Guatemalako Gueçalagan illa. Joan Inazio'ren aita, Zaldibi'ko udaletxeko diru-zai bezela agertzen da. Ta eliz nagusian beren ill-obia ba-zeukaten. 1789'ko agorraren 29'an, 53 urtekin, il zan. Bere emaztea berriz, 1808'ko epaillaren 14'an, 19 urtetan alargun egon ondorean, eta gorabera ta naigabe ugari igaro-ta. Joan Inazio espetxean zegolako, ta Jose Mariak jaramonik egiten etziolako, biotz-miñ aundiak igaro bear izan zituan. Frantzisko Inazioren izkutatzea, ta arrastorik gabe gelditzea. Ba-zitekean izatea, Joan Inazioren semeen ardura bere gain artu zualako. Joan Inazio denbora luzean egon bait zan espetxean, eta bere erraiña, Linzuain'go joakina ere 1802'ko urtean il egin bait zan.

No es fácil ofrecer en una apretada síntesis el "curriculum vitae" de Juan Ignacio de Iztueta, nacido en Zaldivia el 29 de noviembre de 1767, y fallecido en la misma villa y en su casa de Iztueta-enea el 18 de agosto de 1845. Largo período de tiempo éste de sus casi 78 años de trayectoria existencial, lleno de vicisitudes históricas y personales en que Europa, España y el País Vasco se vieron envueltos y conmocionados por muchas guerras, y zarandeado de una a otra parte nuestro personaje.

Eran sus padres Joseph de Iztueta, natural de Lazcano, y María Ignacia de Echeverría, de Zaldivia, quienes habían contraído matrimonio en esta última el 24 de febrero de 1755. Contaba él veintitrés años y medio, y ella casi 18. Fueron doce los hijos de este matrimonio: 7 varones y 5 hembras, ocupando Juan Ignacio el quinto lugar. Los hermanos con quienes más relacionado aparece nuestro biografiado son, Diego Ignacio, hermano mayor, María Ana, José María y Francisco Ignacio.

La casa "**Iztueta-enea**" fue construida por sus padres en 1766, un año antes de su nacimiento. Ello hace descartar la idea del oficio de humildes marraqueros en que por mucho tiempo fueron tenidos, acentuando, quienes han escrito, su pobreza. La casa fue evaluada el 2 de marzo de 1803 en 12.999 reales vellón, y ya en 1773 había promovido su padre Joseph el expediente de hidalguía, en el que se ponen de manifiesto diferentes "oficios honoríficos" de su abuelo y antepasados. Así convenía a los que descendían de la casa torre de Lazcano, cuya fachada ostenta todavía un gran escudo de piedra, fruto sin duda de antigua preeminencia. En el Archivo de Indias de Sevilla damos con el nombre de Juan de Iztueta, nacido en Lazcano y muerto en Gueçalaga (Guatemala). El padre de nuestro biografiado figura como tesorero del Ayuntamiento de Zaldivia y contaban con sepultura propia en la iglesia parroquial. Falleció a sus 53 años el 29 de septiembre de 1789, y su esposa el 14 de marzo de 1808, después de 19 años de viudez, llena de dificultades y de sufrimientos, herida en su corazón por la prisión de Juan Ignacio, la desatención de José María y el paradero desconocido de Francisco Ignacio, fuera quizá de haberse hecho cargo de los hijos de Juan Ignacio durante su larga estancia en la cárcel y fallecimiento de su nuera, Joaquina de Linzuain, en 1802.

Joan Inazioren bizitza, ez degu aín ondo ezagutzen. Bere bizitzako une ta denbora batzuetako agiririk ez daukagu. Ezin genezake ba ezertxo ere jakiñ garai oietzaz. Orixe gertatzen zaigu, aren aurtzaro ta 1790'ko ilbeltzaren 11 arteko gazte-aroz ere. Urte ontan ezkondu zan Linzuain'go Maria Joakinarekin, 22 urte zituela. Joakina Urrietakoa zan eta 19 zeuzkan.

Garai artan, Zaldibian, erri-barruan, 18 etxe zeuden. Eta 96 sendi, nekazaritzan edo artzantzian. Orduan, Aralar mendian, artzai asko zebillen. Antziñak eta ao-jakintzak diotenez, Joan Inazio txikia zan. Kolore onekoa. Begiratu bizikoa. Humore onekoa. "Txuri" deitzen omen zioten. Mutiko argia. Laister asi zan nabarmentzen bere lagunen artean. Idazle ta erriko maixu izan bear zuanak, alako idazkera ederra ta liburu zale-tasuna euki bear zuanak, nun ikasi zuan eta nun ezi zan? Ziur ez dakigu. Agian, Lazkauko karmeldarren lekaidetxean. Joan Inazioren amak, bere azkenecian, konbentu ontan iru meza esateko agindu zuan. Eta, 1827'an, Joan Inaziok, eta ango karmeldar batek alkarri idazten zioten.

Joan Inaziok, bere aurreneko emaztearengandik, bost seme izan zituan. Jose Inazio, dantzaria. Bere aitarekin Donostian bizi izandu zana, ta gero Iru'nen. Eta Maria Ana, Maria Antonia, Josepa Frantziska ta Jose Manuel. Maria Antonia ta Josepa Frantziska beren aitarekin ere bizi izandu ziran.

Joan Inazioren garai ontako egiñak zer-edo-zer ezagutzen ditugu. 1791'an, erriko azokan gauz asko ornitu ta saltzen ditu: Olio gozoa, bale edo ballenak, bakallaoa ta sardiñak. Bere ezkon-anai Jose Antonio Mancisidor da erantzuten diona ta bere gaiñ artzen duana. Urrengo urtean, bere etxe ta Amundarain ibaiaren ondoan dauden bi errota, artzen ditu alkiler edo akuran.

1790-1800 bitartean, gorabera auek izan zituan gure Joan Inaziok. 1793'ko agorrean, bere arreba Maria Mikaela il zitzaion, 22 urtekin. 1794'an, bere besocetako ta illoba kuttun Joan Inazio Manzisidor jaio zan, martxuan. Urte ontan bertan, azaroan, izan zuan bere irugarrena: Maria Antonia. 1799'ko garagarrillan, Diego Inazio, bere anai zarrena, il zitzaion; eta bere arreba Joana Frantziska, Pedro Jose Armendariz'ekin ezkondu, Azpeitian. 1798'an, oraindik gordetzen dan agiri baten bidez, Jose Antonio Lasari artalde bat saltzen dio. Garai artarako, artalde aundia zana. Neguan, Donostiko belardietan larratzen zuan. Eta, azkenik, 1799'ko abenduan, bere aurreneko Linzuain emaztearengandik izan zuan bostgarrengo ta azkeneko semea: Jose Manuel.

Berri gutxi, ainbeste denborako, ta bere pertson eta izakerari dagoz-kionak, gutxiago. Aldi ontan guztian, bere erri Zaldibian bizitu zan, aldin-aldin Donosti ta Iru'n'a iretzen zala.

La vida de Juan Ignacio no nos es tan conocida. Hay sobre todo períodos y épocas de los que todavía no se ha podido dar con la documentación, sin que podamos por consiguiente hacer luz. Es lo que ocurre con los años de su infancia y juventud hasta el 11 de enero de 1790 en que a la edad de 22 años contrae matrimonio con María Joaquina de Linzuain, natural de Urrieta, de 19 años.

Zaldivia contaba con 18 casas en su casco urbano y 96 familias dedicadas a las faenas del campo o al pastoreo, entonces numeroso, en la sierra de Aralar. La tradición nos presenta a Juan Ignacio, bajo de estatura, de sano color y ojos vivarachos, de buen humor y conocido con el nombre de "Txuri". Un muchacho muy despierto y que pronto empieza a sobresalir en medio de sus compañeros. Una gran incógnita en su vida, es dónde adquirió instrucción y formación quien iba a ser maestro de primeras letras en su villa, escritor, destacando su buena caligrafía y su amor a los libros. ¡Quizá en el convento de Padres Carmelitas de Lazcano, en cuya iglesia manda su madre, en el testamento, decir tres misas, y mantiene nuestro biografiado en 1827 correspondencia epistolar con un carmelita de allí!

De su primer matrimonio tuvo cinco hijos: José Ignacio, dantzari, que vivió en su compañía en San Sebastián y después aparece como residente en Irún; María Ana; María Antonia; Josefa Francisca y José Manuel. María Antonia y Josefa Francisca aparecen también viviendo en su compañía.

Sabemos algo de sus actividades en este tiempo. En 1791 es proveedor de géneros varios (aceite dulce, ballena, bacalao y sardina) en la alhóndiga de la villa, teniendo como fiador a su cuñado José Antonio de Mancisidor; y al año siguiente ocupa en alquiler dos molinos en Olaa, a dos pasos de su casa, junto al río Amundarain. Los años de 1790 a 1800 están marcados en la vida de Juan Ignacio con la defunción de su hermana María Micaela, con 22 años, en septiembre de 1793, nacimiento de Juan Ignacio de Mancisidor, su sobrino predilecto y ahijado, en marzo de 1794, así como en noviembre del mismo año, de su tercer hijo María Antonia, fallecimiento de su hermano mayor Diego Ignacio en junio de 1779 y casamiento de su hermana Juana Francisca con Pedro José de Armendariz en Azpeitia. En 1798 y por escritura que consta, vende a José Antonio de Lasa un rebaño de ovejas, numeroso para aquella época, y que pastoreaba en invierno en los prados de San Sebastián, y en diciembre de 1799 el nacimiento de su quinto y último hijo de su primer matrimonio con Linzuain, llamado José Manuel. Pocas noticias realmente en referencia directa a su persona. Durante todo este tiempo, fuera de eventuales salidas a Irún y San Sebastián, su vida discurre en Zaldivia.

Obeto ezagutzen ditugu, Joan Inazioaren XIX mendeko aurreko urteak. Aldi gogorra au Joan Inazioarentzat. Bere bizitza ere apika orren zuzena. Salaketa asko izan zituan, eta auzi ugari rlijio gaietan ajolagabekeria ta emakumeekin ibillera txarrak, erantsi zizkieten. 1801'ko abenduaren 6'raño, Billafrankan baituta egon zan, itxura danez, Gainza'ko Martin Antonio Aldosoro eskribauaren etxean, lapurretaren bat egin zualako. Urte ta ill oietan beroietan, 18 egunean, Tolosako espetxera eramán zuten. Emen, kartzelan zegoela, il zitzaien, Zaldibian, bere aurreneko emaztea Joakina Linzuain, 32 urtekin.

1802'ko mayatzaren 11'an, Tolosako espetxetik Azpeitia'kora igaro zuten. Orduntxe, bere anai Jose Maria Zaldibi'ko maixu ta organista izendatu zuten, eta bere ama larri-larri dabill bizi-modu ta diru kontutan. Joan Inaziok Azpeitiko kartzelan jarraitzen du. Baiñan, 1805'ko otsaillaren 24'an, zigorra arintzen zaio, ta Enparan errotan daukan bere ezkonanaiaren etxera pasatzen dute. Egun batzuk ondorean, bere anai Jose Maria iltzen da 26 urtekin. Antxe ezagutu zuan Maria Konzeption Bengoetxea, Bengoetxeako Kontxexi. Irudianez, espetxean au ere, aur bat il zualako. Aldekaitz baserriko labean neskatill bat arkitzen dute ta, 1803'ko uztaren 13'an, Joan Inazio Nikolas Odriozolak bataiatu zuan, Maria Inazia izena jartzen ziotela. Joan Inaziok eta Bengoetxeako Kontxesik beren alabatatzat artu zuten, eta onela legez artuta gelditu zan.

Baiñan, ordurako, urte ontan bertan, 1806'ko jorraillaren 20'an, Logroñoeko izkutuko espetxera eramán zuten Joan Inazio. Emen, zazpi illabetetan egon ondorean, 1806'ko abenduan Azpeitian agertzen zaigu. Logroñoeko Inkisizioaren kartzel izkutuetan agertu zituan geyenbat gure Joan Inaziok, Bengoetxeako Kontxesi'renganako zeuzkan irrika ta maitemíñak.

Espetxetik askatu ziranean, Azpeitiako eleizan ezkondu ziran biyak, 1808'ko otsaillaren 9'an. Urrengo illean eta Zizurkil'en jaiotzen zan, Joan Inazioaren irugarren emaztea izan bear zuana Maria Ascension Urruzola. Baiñan ez ditzagula gertakizunak aurreratu.

Urte onen (1808) epaillaren 27'an, bere ama iltzen zaio Zaldibian, ill onen beraren 14'an bere azkenala egin ondorean. Ba zekian Joan Inazioaren bigarren ezkontza.

1808'ko abenduaren 16'an, Kontxesi'gandik izaten du bere bigarrena: Balentin Eusebio. 1824 abenduaren 20'an, 16 urte zituala, Balentin Eusebiok idazten dio La Habanatik bere aitari. Emen, La Habanan, batu-ko zitzaien bere anai ta Joan Inazio-Kontxesiren irugarrena, Jose Franzisko.

1808'ren azkenetik, (garai ontan Azpeitia zebillen) 1813'ko uzta abuztu arte, ez daukagu Joan Inazioaren berririk. Bere bizitzaren une illun bat da au. Ez dakigu ezertxo ere aldi onetzaz Joan Inazioaren bost urte era-

Más pródigo en noticias es el período que se refiere a los primeros años del siglo XIX. Epoca dura de acusaciones y procesos que llovieron sobre su vida, al parecer no tan asendereada, acusado de indiferencia religiosa y de tratos ilícitos con mujeres, hasta que el 6 de diciembre de 1801 es arrestado en Villafranca, al parecer por robo perpetrado en casa del escribano de Gainza, Martín Antonio de Aldasoro. El 18 del mismo mes y año es conducido a la cárcel de Tolosa. Estando allí en la prisión, fallece en Zaldivia su primera mujer, Joaquina de Linzuain, a la edad de 32 años.

El 11 de mayo de 1802 es trasladado de la cárcel de Tolosa a la de Azpeitia, mientras es nombrado organista y maestro de primeras letras de Zaldivia su hermano José María, y su madre pasa por grandes apuros económicos. Nuestro biografiado continúa en la cárcel de Azpeitia hasta que el 24 de febrero de 1805, se atenúa su prisión, pasando a habitar a la casa de su cuñado Armendáriz en el molino de Emparan. Unos días más tarde fallece su hermano José María a la edad de 26 años. Allí conoce a María Concepción de Bengoechea (Conchesi), presa al parecer por infanticidio, y es encontrada en el horno del caserío de Aldecáiz una niña a la que D. Juan Ignacio Nicolás de Odriozola bautizó el 13 de julio de 1806 con el nombre de María Ignacia, reconocida y legitimada más tarde como hija de Juan Ignacio y de María Concepción Bengoechea.

Pero ya antes, el 20 de abril de este año de 1806 es trasladado a la cárcel secreta de Logroño. Después de siete meses de estancia allí, en diciembre de 1806 da señales de vida y actividad en Azpeitia. Fue en las cárceles secretas de la Inquisición de Logroño donde dio rienda suelta a los sentimientos de su apasionado corazón por Conchesi.

Libres ya de la cárcel, se unieron en matrimonio en la parroquia de Azpeitia el 9 de febrero de 1808. Al mes siguiente y en Cizúrquil nació María Ascension de Urruzola que había de ser su tercera mujer. Pero no adelantemos los acontecimientos.

El 27 de marzo de este año fallece en Zaldivia su madre, sabedora de las segundas nupcias de Juan Ignacio, habiendo otorgado su testamento el día 14 del mismo mes.

En fecha de 10 de diciembre de 1808 nace de su matrimonio con Conchesi su segundo hijo, Valentín Eusebio. El 20 de diciembre de 1824, a la edad de 16 años, estaba en La Habana y escribe una carta a su padre. Se le uniría allí más tarde el tercer vástago, y por tanto hermano, José Francisco.

Desde fines de 1808 en que residía en Azpeitia hasta julio-agosto de 1813 carecemos de toda noticia. Es también ésta una época muy oscura de su vida, de la que desconocemos todo. Cinco años en que

bateko illuntasunean daude (1). Donosti soldaduz inguratua egon zan illabeteetan, Bidasoa'ko mugatik aruntz dabill, San Juan de Luz'en, Donibane'n. 1814'ko garragarillan, Donostian arkitzen degu, denda baten jabe. Urte onen (1814) abuztuaren iruan, Iruñatik idazten dio Martín Onrubiak, eta ala esaten dio: "Nere lagun eta jauna. Poz aundia artzen det ondo zaudelako, **ta zure sendian lasai ta pakean arkitzen zeralako**".

Biyak, Joan Inaziok eta Joxe Aranburuk, Martín Onrubiaaren bidez, Getarian zegoen frantzitar gudalosteari, 400 manta ta 260 lastai-koltxo eman zizkioten. 1813'ko uztaren 1'an, aldegin zuten Guetaritik soldadu auek. 33.276 "vellon"-erreal balio zituan eskeintza onek. Beñere etzuan ordainik artu.

Kontxesi'rekin egin zuan ezkontzak etzuan asko iraun. 1815'ko epailaren 18'an bere, azkenia egin ondorean, 39 urte zituala, ill artan bertan il zan, 28'an. Azkenai ortan, bizi ziran etxea aipatzen du, ta egiten ari ziran beste bat ere bai. Joan Inazio Iztueta, bi etheen jabe izatera iritxi zan: Bat, Bildosola kalean, beko Puyuelo ere zeritzaiona. Bestea, Triperia kalean, eta gaurko san Joan da.

Bere bigarren alarguntasun ontan (1815-1828), Joan Inaziorekin bizi ziran Donostian, bere lenengo emaztearengandik izan zuan Joxe Inazio, dantzaria. Maria Antonia, ta Joxepa Frantziska. Kontxesi'rengandik izan zituanak ere antxe zeuden, batez ere Inazia. Balentin Eusebio ta Joxe Frantzisko, La Habanan azaltzen bait dira aldi au bukatu baño len.

1817'ko abuztuaren 11'an, Donostiako san Bizente parrokian ezkontzen zan Joxepa Frantziska alarguna Donostiko eskribaua zan Joakin Ramon Soraz'ekin. Onen papel-xortak (1813-1831 bitartekoak), Oñati'ko

(1) Errenka ta itz auek idatzi ondorean, Jesus Elozegi jaunak, "Boletín de los Amigos del País" aldizkarian (XXXII urtea, 1.º eta 2.º Lb. 296-300 orr.) "Iztueta, prantzes-zaletua, saldukeriagatik Azpeitia'n auzipetua" izen-buruarekin, oraindik orain lantxo bat argitaratu du.

Bertan gauza ontaz jabetzen gera: "Varios vecinos de Azpeitia, Iztueta entre ellos, fueron mencionados y señalados... como individuos que en el año de la dominación francesa, 1809, mostraron la suficiente actividad como para merecer la nota de "afrancesados" que se les atribuía por parte de numerosos vecinos de la villa".

1814'go otsaillaren 23'an, Azpeitia'ko Jose Domingo Vicuña idazkariak, Iztueta izakera ta gizatasunaz eman zizkigun garrantzizko ondorengo zeatztasun auek, aipatu ditzagun:

"Juan Ygnacio de Ynstueta; pelo largo castaño, cejas del mismo color, nariz afilada, frente mediana, barba cerrada, cara hermosa, estatura baja".

Eta jarraitzen du: "De ciertas declaraciones tomadas a Iztueta durante el proceso, llegamos a saber que el 24 de abril de 1810 se traslada con su mujer Concepción Bengoechea (y sus niñas) desde la villa de Azpeitia donde residía desde el año 1802, a San Sebastián. Sumando los días que pasó en cárcel del Corregimiento de Tolosa, de resultados de este proceso, hallamos: de 28 de febrero a 12 de mayo, 1814, y de 19 mayo a 4 de noviembre = 8 meses de cárcel. Y en cuanto a los días de reclusión en su casa de San Sebastián: 12 de mayo a 15 de junio, 1814: un mes y trece días".

la oscuridad se espesa en torno a su vida y actividades (1). En los meses del asedio de San Sebastián está en San Juan de Luz, al otro lado de la frontera del Bidasoa, y en junio de 1814 reside ya en San Sebastián, dueño de una tienda. Martín Onrubia desde Pamplona y el 3 de agosto de este año, le dirige una carta en la que le dice: "Mi amigo y Señor: Alégrome de que se halle bien, **ya en el seno de su familia con tranquilidad**".

Junto con D. José de Arámburu, había entregado, por medio de Onrubia, 400 mantas y 280 jergones a las tropas francesas, estantes en Guetaria y que la abandonaron en la madrugada del 1 de julio de 1813. El valor de la entrega se cifraba en 33.276 reales vellón, sin que jamás pudiera resarcirse de ellos.

No duró mucho su matrimonio con Conchesi, ya que ésta falleció el 28 de marzo de 1815, a la edad de 39 años, habiendo otorgado testamento el 18 del mismo mes, y en el que se habla de la casa que habitaban y otra que estaban construyendo. Iztueta llegó a ser dueño de dos casas: una en la calle Bildósola, llamada también de "Puyuelo bajo", y otra en la de Triperia que corresponde a la de San Juan.

En esta segunda etapa de su viudez (1815-1828) disfrutaba de la compañía en San Sebastián de su hijo José Ignacio, dantzari, hijo de su primer matrimonio, así como de María Antonia, de Josefa Francisca. A ellos se añadían los habidos de la Conchesi, sobre todo Ignacia, ya que Valentín Eusebio y José Francisco aparecen en La Habana antes del fin de este período.

Josefa Francisca se casó el 11 de agosto de 1817 en la parroquia de San Vicente de San Sebastián, con D. Joaquín Ramón Soraz, viudo

(1) Después de escritas estas líneas, Jesús Elósegui ha publicado en "Bol. de la R. Soc. Basc. de los Amigos del País", (año XXXII, cuadernos 1.º y 2.º, págs. 296-300) un trabajo titulado "Iztueta, afrancesado, procesado por infidencia". Entre otras cosas, leemos: "Varios vecinos de Azpeitia, Iztueta entre ellos fueron mencionados y señalados... como individuos que en el año de la dominación francesa, 1809, mostraron la suficiente actividad como para merecer la nota de "afrancesados" que se les atribuía por parte de numerosos vecinos de la villa".

El 23 de febrero de 1814 el escribano azpeitiarra José Domingo de Vicuña nos suministra los siguientes datos antropológicos: "Juan Ygnacio de Ynstueta; pelo largo castaño, cejas del mismo color, nariz afilada, frente mediana, barba cerrada, cara hermosa, estatura baja" Y añade Elósegui: "De ciertas declaraciones tomadas a Iztueta durante el proceso llegamos a saber que el 24 de abril de 1810 se traslada con su mujer Concepción Bengoechea (y sus niñas) desde la villa de Azpeitia donde residía desde el año 1802, a San Sebastián. Sumando los días que pasó en cárcel del Corregimiento de Tolosa, de resultados de este proceso, hallamos: de 28 de febrero a 12 de mayo, 1814, y de 19 de mayo a 4 de noviembre = 8 meses de cárcel. Y en cuanto a los días de reclusión en su casa de San Sebastián: 12 de mayo a 15 de junio, 1814: un mes y trece días".

Unibertsidade edo Ikastetxe Nagusian gordetzen dira. Geroago, (ta gorabera batzukin) 1818'ko ilbeltzaren 2'an, eliz ortan bertan ezkontzen zan Maria Antonia, Manuel Paris-ekin. Au, Lobaina baserrikoa zan, Antiguoko parrokian.

Urriari, Santa Fe'ko pestak dirala-ta, Joan Inazio Zaldibian ikusten degu. Emen, 1820'ko urriaren 13'an, bere esku ta lur-ondasunak, bere arreba Anari ta ezkon-anai Jose Antonio Manzisidor'i, uzten dizkie.

1824 urtean, (jaurgo ta lege-zaleak galdu, ta "absolutista" edo al-osodun erregeak irabazi zuanean, —Iztueta errege al-osodun zalea zan—) Inazio Erramon Barojaren irarkolatik irtetzen da bere dantza liburua. Urte bete baiño geyago kosta zitzaion egitea. Ain zuzen, urte ortan, bere alabari baimena ematen dio, dantza ospetsu bat egiteko. Aurretik, gure dantzak berpizteko asmo bakarrarekin, ardura ta ajola bereziarekin, berari erakutsi zizkion ta ortarako ezi zuan.

Londres'en erbestetuta zegoen, Pablo Mendibil'en bidez, bere liburuen agerpen-bilduma bat argitaratzen du Londres'en; ez ordea, erderaz ere itzulita sartu zuan "Kontxesi'ri" olerkariari, onoko oarr maltzur au jarri gabe: **"El poeta bascongado fue más feliz que el gallego, cuyos versos amorosos le acarrearón la muerte en la misma cárcel. Iztueta salió de ella e inmediatamente dio la mano de esposo a su esposa, por quien tan apasionadamente suspiraba"**.

Oraindik 1824'an, ez ditu eskuratu 33.776 erreal, frantziko gudaosteai, 1813 urtean, emandako janarien ordaiñez. Ezta 10.000 erreal ere, ordun bertan eman zizkien 400 mantegatik. Egan bearririk ez dago: onek miñ ematen dio.

Urte onen urriaren 16'an, Donosti'ko "Puerta de Tierra'ren" zaindari jartzen dute. 1826 urtean, agindutako dantza-soñuen liburua argitaratzen da. 1828'ko epaillaren 3'an, Donosti'ko san Vicente parrokian, ezkondu baiño len, Kontxesi'rengandik izan zuan Inazia, Segura'ko Jose Antonio Azpiazu'rekin ezkontzen da. Andik illa-betera, jorraillaren 8'an, inguruan bere semerik gabe bere burua ikusten dualarik, Joan Inazio Iztueta irugarren aldiz ezkontzen zaigu, Zizurkil'go Maria Ascension Urruzola'rekin. Iztuetak, 60 urte zeuzkan. Mariak, 20.

1829'ko epaillan jaiotzen zaie aurreneko ondorengoa: Martina Antonia. Urte ortan bertan idazten du 40 orriko liburuska bat, Juan Jose Mogel apaizari zuzendua, bere dantza liburuen aurkako Bartolome de Santa Teresa praileari erasoaz. 1831'ko abenduaren 24'an izaten du bigarrena, bere irugarren ezkontzatik. Pedro du izena. Gazterik il izan bear zuan. Urte aietan asko idazten du Iztuetak. Santiago Unzeta ordezkariari, Batzar eta Diputazioko idazkari Erramon Gereka'ri egin zizkien eskutitzak adierazten dute ori. Lecluse frantzesarekin, Bautista Arrizabalagarekin, Paskual Agustín Iturriagarekin, Pablo Ulibarriekin eta beste askorekin ere, izan zituan artu-emanak idazkiz. Joan Inazio Iztuetaren

y escribamo de San Sebastián y cuyos legajos (de 1813 a 1831) se custodian en la Universidad de Oñate. Después, y no sin algún lance, María Antonia, en la misma parroquia, el 2 de enero de 1818, con Manuel París, residente en el caserío Lobaina, parroquia del Antiguo.

Con ocasión de las fiestas de Santa Fe en octubre, Juan Ignacio se encuentra en Zaldibia, donde el día 13 de 1820 renuncia y dona sus bienes muebles y raíces en favor de su hermana María Ana y de su cuñado, José Antonio de Mancicidor.

En 1824, —fuera del triunfo del ideal realista y derrota del constitucionalismo (Iztueta era realista, absolutista o servil) año en que concede "permiso a su hija para un baile majestuoso, pues, sin otro objeto que revivir nuestros bailes, la enseñé con toda formalidad"—, ve salir de la imprenta de Ignacio Ramón Baroja su libro de danzas, cuya preparación le debió llevar más de un año. Por mediación del exilado en Londres, Pablo de Mendibil, publica allí al año siguiente una presentación-resumen de su libro, no sin añadir en nota a la poesía "Contceziri", que incluye con traducción al castellano, esta nota socarrona: **"El poeta bascongado fue más feliz que el gallego, cuyos versos amorosos le acarrearón la muerte en la misma cárcel. Iztueta salió de ella e inmediatamente dio la mano de esposo a su esposa, por quien tan apasionadamente suspiraba"**.

Todavía en 1824 y sin solución le duele la cobranza de 33.776 reales procedentes de los víveres entregados a las tropas francesas durante el sitio de esta plaza el año de 1813, además de otros 10.000 reales por 400 mantas que en aquella época suministró.

El 16 de octubre de este año es nombrado celador de la Puerta de Tierra de San Sebastián. En 1826 ve la luz el libro prometido de las melodías de las danzas. El 3 de marzo de 1828 contrae su hija Ignacia, fruto de las relaciones que tuviera antes de casarse con la Conchesi, matrimonio con José Antonio de Azpiazu, natural de Segura y en la parroquia donostiarra de San Vicente. En fecha de 8 de abril, un mes más tarde de la boda de su hija Ignacia, ya sin hijos en su compañía, contrae Iztueta sus terceras nupcias con María Ascensión de Urruzola, de Cizúrquil. El contaba 60 años y ella 20.

En marzo de 1829 nace la primera hija de su matrimonio con María Ascensión, llamada Martina Antonia. Este mismo año escribe un librito de 40 páginas o cartas, en la que ataca a fray Bartolomé de Santa Teresa, contrario a su libro de danzas. Está dirigido al presbítero D. Juan José Moguel. En 24 de diciembre de 1831 le nace su segundo hijo de su tercer matrimonio y lleva el nombre de Pedro, que debió morir joven. Son estos años de gran actividad literaria, como se colige de las cartas a Santiago de Unceta, diputado; a Ramón de Guereca, secretario de la Diputación y Juntas, correspondencia con el francés Lecluse, con Juan Bautista de Arrizabalaga, con Pascual Agustín Iturriaga, Pablo de Uli-

izenak oiartzun aundia zeukan, eta Paris'tik ere galdetzen zioten.

1832'an, Bizente Binuesaren Kultura-Etxean euskeratzaz itzaldi bat egiteko, Madrid'ko jaun batek ots-egin zion Joan Inaziori.

Donostian, amar urtetan ertzain izan ondorean, 1834'an, alkate egin zuten. Baiñan, alabearraren zirtzoak! Urte ontan bertan, azaroan, bere arreba Maria Ana, Manzisidor'en emaztea, il zan Zaldibi'n. Atsekabe aundia artu zuan.

1840'an, gerra dala-ta, sei illa-beteko saria ez duala jaso, mintzatzzen da. Baiño, geroago, bai, jaso zuan. 1844'ko abuztuaren 7'tik asi-ta, 1845'ko uztaren 1 arte, Guipuzkoako gordairuan izandako diruen sar-irterak aztertzen baditugu, irtera, langille-sari ta artzekodunen artean, auxe irakurriko degu: "A don Juan Ignacio de Iztueta por el importe de dos libramientos que expidió a su favor la Diputación foral con fechas de 1 de nov. y 1 de dic. de 1835 para pago de su sueldo como alcaide de Corregimiento de esta provincia, 910 reales".

1837'an, Billafrankan, Esteban Gaztañagaren aurrean egindako idazki batean, Zaldibi'ko bizilagun bezela agertzen da. Baiñan galdetu genezake: Liberala izanik, eta Donosti beraien menpean egonda, nolatan igaro zan Iztueta, karlisten mendean zegoen Goierrira? Gaurkoz, galdera aueri erantzuten ez da oso errez. Egia, auxe da: 1840 baiño leenago, ziur Zaldibin dagola, eguneko sei erreale eskuratzen ditula bizitza guztirako sari bezela. Sari au ematen zitzaion, "a condición de que a su muerte habían de quedar como propiedad de esta Provincia tanto la obra que anteriormente tiene escrita sobre los bailes y canciones antiguas del País, como cualquiera otra que publique o deje escrita sobre el carácter, usos y costumbres del País".

Vergara'ko besarkada urtero ospatzen zan urte-betean, 1841'ko gastuen zirrindan, Iztuetaren kontua, taldearengatik, 3.250 erreale da. Banketea kendu ezkeru, aixa, aundiena.

Urte auetan, eta sutsu, bere "**Guipuzcoaco condaira**" eratzen eta egiten ari da. Iztueta ilda andik bi urtera, 1847'an, argitaratuko zan, bere lagun on Agustín Paskual Iturriaga apaiza zala bide.

Iya 78 urte zituala egiten du bere azkenia, ta egun artan bertan iltzen da Zaldibin, 1845'ko abuztuaren 18'an. Egun ontan, gorabera aundiko ibilketa baten ondorean, Gipuzkoako gizon baten bizitza bukatzen zan. Batzuk maixeatu zuten. Beste batzuk, atsekabetu ziran.

Geldi ta sakabanatuta jo zituzten kanpai-otsak, Zaldibiko inguru guztietan zabaldu ziran, berri ituna eramanaz; Aralar'ko mendi-saietsetan dauden baserrietaraiño. Abuztuko aratsalde artan, txistu ta txakurren zaunka artean, artzaiak beren ardiak eraman zituzten sarobera. Lurra mendiko laiño zuriz estali, eta Txindoki, batzutan margoztuta, beti bezelaxe, antxe zegoen tente.

barri, etc., etc. El nombre de Iztueta sonaba ya y era objeto de consulta, incluso con encargos que le llegaban de París.

En 1832 fue invitado por un señor de Madrid para dar una conferencia sobre vascuence en la Casa de Cultura de don Vicente Vinuesa.

Después de diez años en el ramo de policía de San Sebastián, es nombrado Alcaide del Corregimiento en 1834. Ironías del destino. Mucho debió sentir el fallecimiento en Zaldivia en el mes de noviembre de este mismo año, de su hermana María Ana, esposa de Manzisidor.

En 1840 se queja de no haber cobrado seis meses de 1834, por obstáculo de guerra, que consigue cobrar más tarde. En entradas y salidas de fondos, habidos en la tesorería de Guipúzcoa de 7 de agosto de 1844 hasta el 1 de julio de 1845, en salidas, sueldos de los empleados y bajo el título de "acreedores comunes y otros" (pg. 8), leemos: "A Don Juan Ignacio de Iztueta, por el importe de dos libramientos que expidió a su favor la Diputación foral con fechas de 1 de nov. y 1 de dic. de 1835, para pago de su sueldo como alcaide de Corregimiento de esta provincia, 910 reales".

En 1837 aparece como vecino de la villa de Zaldivia, en una escritura otorgada en Villafranca ante Esteban de Gaztañaga. Cabe preguntarse: ¿Cómo siendo liberal, y bajo su signo estaba San Sebastián, pudo pasarse a la comarca del Goyeri en poder carlista? Son preguntas a las que no es fácil responder por ahora. Desde luego reside con toda certeza en Zaldivia antes de 1840, cobrando la pensión vitalicia de seis reales diarios. Se le concedía la pensión vitalicia "a condición de que a su muerte habían de quedar como propiedad de esta Provincia, tanto la obra que anteriormente tiene escrita sobre los bailes y canciones antiguas del País, como cualquiera otra que publique o deje escrita sobre el carácter, usos y costumbres del País".

En la celebración anual del aniversario del Abrazo de Vergara, en la relación de gastos de 1841, la cuenta de Iztueta por la comparsa, es de 3.250 reales, la más elevada por mucho, a excepción del banquete.

Durante estos años y febrilmente, ordena y transcribe su "**Guipuzcoaco condaira**" que había de ver la luz dos años más tarde de su fallecimiento, en 1847, y debido sin duda al interés de su buen amigo y presbítero Agustín Pascual Iturriaga.

Otorga su testamento, casi ya con 78 años de edad, el mismo día en que fallece en Zaldivia, el 18 de agosto de 1845. Este día, después de un largo periplo lleno de incidencias, se cerraba una aventura humana y guipuzcoana. Hubo comentario en unos, pena en otros. Los toques espaciados de la campana, se extendieron por el ámbito hasta los caseríos en las estribaciones de Aralar. Tarde de agosto, se vio cómo entre ladridos de mastines y silbidos, los pastores arredilaban sus ovejas, llenándose como de nubes blancas el suelo de la sierra. Seguía erguido, coloreado en momentos, el Txindoki.

Bertsolari

"Las contiendas poéticas a juicio de árbitros que las califican, como se practicaba entre los famosos arcades, son uno de los juegos más frecuentes entre la gente campesina, marinera y artesana de Guipúzcoa. Todos, puede decirse, nacen poetas, todos versean y ninguno escribe sus versos; pero apenas los cantan, corren de boca en boca por todos los pueblos, y la alabanza o vituperio del magistrado íntegro o injusto, del hombre o de la mujer viciosos o ridículos, el elogio o la burla del diestro vencedor o del presuntuoso vencido en los juegos públicos, todo está sujeto a esta inexorable magistratura de los bersolaris populares, cuya libertad es indestructible y se puede decir inatacable. Siendo esta verdadera costumbre un verdadero baluarte que, fundado como el de la imprenta en la opinión pública, ataca las usurpaciones y atentados de la arbitrariedad, no es extraño que los satélites de ésta, que por igual los encuentra aun en los países más libres, procuren socavarlo y cuando no, dirigir a él a los menos sus rabiosos e inútiles tiros".

(Del folleto escrito por Iztueta y publicado en Londres por Pablo de Mendivil en 1825 como presentación de su libro de danzas).

Joan Inazio Iztuetak dauzkan ainbeste alderdi eder eta arrigarrien artean, ba dago bat oso gutxi ezagutzen dana, ta laburki bederik, ikasi bearrekoa: Bere bertsolaritza, bere olerkari-arnasa. Zalantzik gabe, esan dezakegu, oraindik Iztuetaren alde au ez dala bear bezela ta gutxigorik ere ikasi ta aztertua izan. Eta ori, erriko gaiak erabiltzea ta bertsotan jarri ta abestea, bere joerarik aundiena izan zala. Lan ortantxe, ain zuzen, Iztuetaren nortasuna ta ospea sendotu ta zabaldu ziran eta.

Joan Inazio Iztueta mutill argia zan. Eresi ta musikarako, belarri onekoa. Gaztetandik sortu zitzaion ba, olerkari antzera mintzatzeko gogo ta irrika. Zalantzik gabe, Iztuetak bertsolari ta olerkari arnasa zeuzkan, eta griña onek iraun zion il zan arte. Inguru guztiori begiratzen ziola, zentzu denak zabaltzen zituala edozein erako giroari, eziñ esaneko zaletasun bat bere barru-barruan nabaritzen zuala... bere goi-atsa irtetzen zala esan dezakegu, lau bertsotako aapaldietan bere **"Guipuzcoaco Condaira"** ta beste bere lanak, bertsolari abesten zituanean.

1802'ko otsaillan, Billabonan, Amezketako Zabala ta Hernaniko Chabalategui bertsolarien artean eratu zan leiaketan, epailari aukeratua izateak, nik uste det zer-edo-zer baiño geyago ere esan nai duala. Artean, 33 urte besterik ez bazeuzkan ere, Goyeri'ko mugetatik aruntz, Guipuzkoa osoan ezaguna zala, garbi asko adierazten du. Bere dantza liburuan, Iztuetak berak esaten baldin badigu ere, berak ezinda, bere ordez Fernando Amezketarra joan zala.

Leiaketa klase auetara zeñen egotzia zegon, eta beroietara nolako zaletasuna zeukan, garbi asko adierazten digu Ladislao Velascok (1) itz-egiten digunean, "del certamen más notable que ha conocido este siglo" (siglo XIX), y que tuvo lugar el último día de los ñautesis o carnavales en Tolosa, entre Zabala, Fernando, Chabalategui, y Altamira, el 2 de marzo de 1802.

Iztuetak bertsotako zeukan joera ta zaletasun auek, (bere bertsoetatik zati txiki bat besterik ez degu ezagutzen), trebetasun aundiegiarekin, Karmelo Etxegaray jaunak esan zuana ezeztatzen dute. "Iztueta maneja a su arbitrio la prosa vascongada, pero no así el verso, que se le mostró siempre rebelde... a excepción de una sola, en que su alma

(1) "Los Eúskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Sus orígenes, historia, lengua, leyes costumbres y tradiciones". Barcelona 1879, 554 págs.

Se hace ineludible un estudio, siquiera breve, de una de las facetas menos conocidos de la compleja y muchas veces desconcertante figura de Iztueta: su bersolarismo o su genio poético. Es sin duda éste un aspecto al que hasta ahora no se le ha prestado la debida atención, cuando existen pruebas más que suficientes de que ahí, en el tratamiento y en la versificación de temas populares, fue donde exteriorizó en cierto modo su vocación, puso y consolidó su fama y personalidad.

6) **Nere cristau maiteac**. Estrofas, más numerosas que las de "Aste Santua dator" que dedica Iztueta a las autoridades en su libro de danzas, págs. 191-194, segunda edición, 1895, Tolosa. Están mucho mejor torneadas éstas, incluso con la cita del P. Eusebio Nieremberg del libro "Diferencia entre lo temporal y eterno". No conocemos más estrofas de estilo religioso. En su testamento y en el apartado de libros se habla de un ejemplar de "Cantico espiritualac". Creemos que en su juventud compuso más, como de los preceptos del Decálogo, de los que se habla en la sumaria del proceso de Logroño.

II.

Oiturakoak

Costumbristas

"Mi amigo Iztueta: Recibí a su tiempo los cuatro ejemplares de la contestación de Ud. al Padre Calparmona... Su lectura me divirtió bastante, y ha gustado aquí, con particularidad el Cuentecillo de la Vieja sobradientes, y los versos relativos a él, los cuales parece hicieron también reír a nuestro amigo el crítico..."

(De una carta de Juan Bautista de Arrizabalaga, secretario de Juntas y Diputaciones de la Provincia, desde Tolosa el 1 de abril de 1829.

"Amigo Iztueta: Para servir a una persona que le aprecia, deseo hacerme con las canciones de ezcomberriac y las de la venta de Tocino en Navarra que principian "urday saltcera...", y siendo Ud. el inventor de los primeros y sabedor de los segundos, vea Ud. de obsequiarme con ellas mandándome por el correo".

(De Domingo de Iraunta desde Motrico, 16 de agosto de 1844).

1) EIZTARIANAC

1
Maiatzaren illeco
elurte andiac
es-tali ditu curten
sasi ta mendiac:
beretatic jachiric
basoco pistiac
arrapatu dituzte
aisha eiztariac.

2
Idiazabaltarrac
gira eta bira
aceriaren guisa
eiztariac dira:
naiz dala ollo, eper,
orobat erbia,
seguru dute, ichi
ezquero beguia.

3
Artacoac dirala
jaquiñean nago
Vicario, barbero
tan don Jose Galo:
eiceraco guiroa
icusi ezquero
beretacoric iñor
ez da egongo lo.

4
Maiatz illaren oguei
ta bederatzian
asteazquen egunaz
nere iritzian:
irurac erbitara
irten omen ziran,
ugari billatzeco
pozquida bician.

5
Bañan ecin arquituz,
zutelaco etsi
echerontzco bidera
omen ciran jetsi:
Mendizabalec ceban
fortunaz icusi
basoaquer andi bat
sasitic iguesi.

6
Arras icaraturic
esan ceban garbi
cer deabruzco erbi
ote degu ori:
nondic nolatan zaicu
onara etorri?
Vicarioac zion
tiratu berari.

7
Jaun prestu au izanic
aíñ tirari on
eizari quendu cion
bertan osasuna:
perdigoi bacar batez
ura zan fortunál
Ea non billatzen dan
alaco quizona.

8
Beraren lagun biac
jarriric goiean
icaraturic ceuden
aldeguin naiean:
astean ere bai ta
quiago jaiean
gutzizco eiztariac
dirade maiean.

9
Barbero jaunarequin
don Jose Galori
basaquerra citzaien
oñetan erori:
icusi zutenean
burutic elbarri
despitan omen ciran
alcarrequin jarri

10
Bata cegoalaco
ondo icasia
eri jarten diranci
quendutzen bicia:
juecetara bague
beingoan gucia,
laster erabaqui zan
jaun oen aucia.

11
Vicarioac cien
muñotic otseguin
gueldi cegoen eiza
etzetatela ill:
poliquicho loturic
artu ezcezan miñ
gorde bear zutela
bici ote cediñ.

12
Mendizabalec ere
bere iritzia
manifestatu ceban
garbiro gucia:
opa bear zaiola
eizari bicia
icusi ezqueroztic
humil ta etsia.

13

Barberoa bildur zan
gutziz arrigarri
adarra sarleguion
aquerrac tripati:
eriac menderatzen
berac ondo daqui,
tiro bat eman cion
buru muñetati.

14

Don Jose Galo eta
barberoa nosqui,
aquerra ill ta ere
beldur ciran lazqui:
erabilli baitzuten
aztalcaric asqui
adar luce zorrotzaz
ote citzan josi.

15

Socaz ondo lotu ta
sarturic maquilla,
contuz eraman zuten
basoaquer illa:
iritsi ciraneco
arequin errira
berreun atso bederic
ba ciran beguira.

16

Quentzeco pisti gaizto
menditarren quezca,
urrungo igandean
eguin zuten pesta:
mutil eta nesca
baturic asco guizon
basaquerric gueiago
azalduco ez da.

17

Funcio añ gozo au
Idiazabalen
elur andien bidez
izandu da aurten:
convidatuac baizic
ez da maiean jarten,
amabi lagun ciran
basaquerra jaten.

18

Bazcaldu zuteneco
ba zuten visita
errico gazteria
arturic musica:
barberoa pozturic
aec icusita,
iñorc ecin ishildu
ojuz garrashica.

19

Don Jose Galo ere
onequin batean
asi zan deadarca
ondocho jarlean:
guciac itzeguiten
alcarren artean,
garbiro entzuten zan
gutziz apartean.

20

Ormaiztegui menditic
jaun oen jolasac
entzun omen cituen
Aseguinolazac:
mingañaz igortzitic
aguñ eta ortzac,
ezagutu ere bai
etzeudela otzac.

21

Basaquerraren pesta
orain da bucatu,
eguia dan edo ez
ez da zer dudatu:
bear ez dan gauzatan
baldin banaiz sartu,
nere esanic ez da
zer puntura artu.

2) ERBIA JAN ONDOAN

1

Erbia jan ondoan
jay cer atseguñal
arapatzeco eguin
gogoz aleguiña;
salsa badu coipean
ondocho eguiña,
gutziz gozoa baita
aren guizurdiña.

2

Zaldivian eiztari
azcarrac ba dira,
zuzenqui bear zayo
erbiari tira:
dala buru aldera
edo ipurdira,
bestela joango da
biciric mendira.

3

Icusi izan ditut
nic berso berriac
eiztari ustecoac
tabernan jarriac:
ez ditu sendatuco
gaisho ta eriac
escopetaz jaun oec
ildaco erbiac

4

Erbia zarrac iltzeco
aste ta jayean
jarri izan dirade
ascotan gayean:
nolanay tira arren
lurrera ta aizean
arras eiztari onac
dirade mayean.

5

Eizera joanarren
igaz eta aurten,
tira bide onean
ez dirade jarten:
erbi-apari asco
ez dute ematen;
bestec arrapatutic
ba daguite jaten.

6

Guertatu izan dala
artu det barria,
ez daquit dan guezurra
edo dan eguia:
lotan zegoalaric
apian erbia,
tira eta utseguin
¡Ha, cer eiztaria!

7

Baculua arturic
apropos illtzera
joan izandu zala
det nic aditzera:
tiroa aurrera ta
erbia aitzera,
bete betean jarten
biciro gaitze da.

8

Escopeta jarriric
baculu gañean,
tiratu omen cion
sosegu onean:
polboraren usaya
entzun ondorean,
erbiac arantzari
etzuen oñean.

9

Erbia iguesi ta
¡Ura naigabeal
ez omen zan contentu
baculu jabea:
icusi izan balu
mayean pareta,
ondo guisatuaren
gutziz da zalea.

10

Edoceñec badaqui
dala chit gaiztoa,
guertacari char char bat
berez alacoa:
naiz dala guicena ta
orobat flacoa.
gozoagoa dala
uste det gaurcoa.

11

Erbia baldin bada
menditic jetsia,
guria izango da
beraren chichia:
are gozoagoa
zopatan bustia,
tiratzalle onari
zor zayo guztia.

12

Eiztariac daquite
mai ona ipintzen
eta adisquideac
bertaraco biltzen:
goiz batean bacarric
iru erbi guicen,
baculu baguetanic
ceñec ditu illtzen.

13

Anton eta Manuel
goyen eta bean
jarri ezqueroztanic
tiratzeco eran,
eizac pensatuco (...
seguru (...
icusi (...

3) NERE LAGUN MAITE

1

Nere lagun maite ta
adisquide Embil;
zure mandatua nic
zucenqui det eguin,
testiguac arturic
colpatuarequin,
asuntoaz jueza
enteratu dedin.

4

Juezac galdeturic
—esazu, ala da?—
defensaren eguiten
asi zan Camara:
vengatu nai duela
iñolaz al bada,
eguin gueniolaco
farra ta algara.

7

Legueac zuzenquiro
ezarriac daude
bañan indarra oi da
beti aien jabe;
nic guezurra badiot
edoceñi galde,
maquilca ecin icasi
miñic artu gabe.

2

Icusi duenean
asunto larria,
juezak formatu du
bertan sumaria;
Eloy asi zanean
claratzen eguia
illun ifinten cion
Camarac beguia.

5

Camarari juezac
dio cargu eguin,
ea cequien nor zan
Don Francisco Embil?
eman arren buruan
maquillarequin min,
pozic dagoqueala
etzuenean ill.

8

Nai badezu, Camara,
maquilca icasi,
urrena etorcean
Embillequin asi;
gorgolloac arcera
bear dezu ezi,
ordañac emateco
bigar edo etzi.

3

Zuen bien artean
cer zuen icusi
Eloi esplicatutzen
arguiro zan asi:
Camarac naizuela
maquilca icasi,
jo cenduela bañan
ezurric ez ausi.

6

Aserre jarri zan chit
Camara orduan
esanaz min zuela
oraindic buruan;
guizona tratatzea
alaco moduan
condenatzen zutela
legueac munduan.

9

Ez nuen gorgolloric
colpea egotziz,
bañan min artcen nuen
calaberan guciz,
jarri citzaidalaco
bertan equimosis
ceña curatu nuen
ardo on egosiz.




7.—Una vista parcial de Zaldivia nevado. (Fot. Willy Koch).



8.—Oso cazado a principios de siglo por un Ayestarán, descendiente de Zaldivia, en Barruelo de Santullán (Palencia).



9.—Aitz goititu onen erpiñera beste eguiteco bague igoric, egon izandu naiz neur bein baño queiagotan, campo zabal icusgarriai beguira ezin aspertuz (111 cap., aurrenengo zatia, orrialde 37 Iztueta'ren Guipuzcoa-co condairan). Al pie del Txindoki, la ermita de Saturdi en Zaldivia. (Fot. Iñaki Linazasoro).



Neure adisque on
 inne ta mania,
 antu der izquida, zere
 euscanaiz jancia:
 ain dago goithoa, ta
 edengui neuunia,
 inacunte eman deust
 atreguin andia!

Benbatie ezagunda
 guicomanen guina,
 aguerri da cenala
 euscaldun turt pina:
 esquen onac emonaz
 zenni arco mulla,
 gura neuque exantzun

! baino ez naz dina!
 España guttico
 jaun, eta jabea,
 buni-onan Fernando
 gerne Ennequea:
 biotz ~~etan~~ dancaqui
 ondocho gondea,
 ezin guentzague izan
 bere bat ohea:

Bene ataba, anai,
 Emazte ta guci
 unte arcoz dezala
 jaungoicac bici:
 biotzeco manitic
 ez guentzague icli,
 euscalduna maite du,
 ez atene guichi!

10.—Facsimil de "Neure adisque on".

Canta unitaniecal
 izcuntra eunena,
 mundu guzi guttitan
 izan zan tenena:
 onainguino ^oeran
 danic edezzena,
 ; nox ezragui gu aen
 to guian gaudena?
 † Choni buni guzzu-en
 lumarzan aninac,
 jalqui izan diruzte
 benba lazz lamina:
 galzeco euscana ~~en~~
 enno mandul pina:
 ; baino alpennic dina
 ennen alequina:

Gure euscana ezta
 burutic jancia,
 saroyan anguitzen da
 onaino gucia:
 mabacinic, bidez,
 besteai ancia,
 aguentico da noiz bait
 edengui jancia.

Pablo Unibarnico
 gogangannia,
 badaquit cenadela
 euscaldun gambia:
 jaungoicac denratatula
 zoni-on andia,
 zenne gumaninac
 naz Echebannia.

10
 Colpeac meningean
 ez dirade chit on,
 anchen sortu citzaidan
 niri congestión;
 es menester ifini
 Embil en prisión
 besteri alacoric
 eguin ez deguion.

11
 Juezac esan dio
 Camara jaunari:
 —Ecin diet termino
 oriei igarri;
 bañan icusitcen det
 arguiro ta garbi
 colpeac artu arren
 etzaudena eri.

12
 Ematera noa ni
 nere sentencia
 icusirican ongui
 proceso gucia:
 gozoa chit guchitan,
 ascotan gacia
 badaquizute bada
 oidana aucia.

13
 Aucitan asitcea
 gucientzat gaizto,
 igarotcen da cembait
 onelaco chasco.
 Embillec bear ditu
 eman sei ollaisco
 baduela uste det
 castiguric asco.

14
 Camarac ere busti
 bear du beatza
 pagatcen dituela
 ardo ta legatza,
 arrasalde bat ona
 dezaquegun pasa;
 medicuen languintza
 chit da aberatza.

4) CHURRUT ZALEARI ADISQUIDE
 BATEC (Bolera-doñuan)

1
 Cantari asicen naiz
 adi nazazu;
 nic daquidana ceurchoc
 jaquingo dezu:
 egon ixillie,
 gauza pollit ascoac
 esan ditut nic.

3
 Buru queaz betea
 zorabillaca,
 iritxi dabillela
 lurra giraca:
 begui zacarra,
 uste du bi dirala
 argui bacarra.

2
 Churrut churrut asi da
 urlia edaten,
 cer guertatuco zayon
 ez du pensatcen:
 mingaña lodi
 itzac ceñec aditu
 orduan ari?

4
 Ibillcen asitzean
 ancac gurutze,
 burua macur oquer,
 lepoa luce:
 siasca eguina,
 bideric zabalena
 ez da aren dina.

5

Ederra dec planta ori
guizon batentzatl
nic ez niquec ala nai
nerezat beinzat;
tonto lapico!
oitura circill ori
noiz duc utzico?

6

Oa echera eta
oian sartu
inorc ez ecusteco
i ain zoratu;
lotsagarria,
iturriz itzali zac
goiz egarria.

7

Ez baduc ic utzicen
oitura charra,
igatic egingo dic
munduac farra;
ez duc andial
ongui irrigarri duc
guizon ordia.

8

Orra consejuchoac
ongui cumplitu:
eguiarican asqui
dezu aditu;
zurezat obe
betecen ba dituzu
lasaitu gabe.

9

Ibillcen ez bacera
edanaz arin,
esanac esan, eta
eguiñac equin,
ortic ibillil
ez nic caso gueyago
astotzar orri.

5) OIEC BERAC ZORTZICOETAN

1

Cantari asitcen naiz
aditu nazazu,
nic daquizquidan gauzac
jaquingo dituzu.
Egoten bacerade
adicen ixillic,
gauza pollit ascoac
esango ditut nic.

3

Buru queaz betea
ai jzorabillacal
uste du dabillela
lur ori giraca.
Begui macar-jario
ondicoz zacarra:
irichi, bi dirala
argui bat bacarra.

2

Churrut churrut ari da
urlia edaten,
cer guertatuco zaiou
ez du arc pensatcen.
Laster guelditzen zaiou
mingainchoa lodi,
auco itzac orduan
norc adiera-aci?

4

Ibilltcean
zangoac gurutze,
buru macur oquerra,
lepo ori luce:
ibilceco moduan
siasca equiña,
bideric zabalena
ez duc aren diña.

5

Ederra duc planta ori
guizon dan batenzatl
ez nuque ala naico
nic nerezat beinzat.
Ezagu zac oquerra
bein, tonto lapico,
oitura circill ori
ez al duc utzico?

6

Oa echera eta
laster oian sartu,
iñorc ez ecusteco
orren zoratu,
guizon, erriarenzat,
ain lotsagarria;
iturriz itzali zac
goizeco egarria.

7

Ez baduc ic utzicen
costumbre ain charra,
igatic egingo dic
mundu orrec farra;
ez, ordeca, pensatu
dala gauza andia,
ongui irrigarri duc
guizon bat ordia.

8

Orra consejuschoac,
ceurc ongui cumplitu:
asco eguia eder
dituzu aditu.
Betecen badituzu
lasaiqueri gabe,
gureztat on izain da
ta zurezat obe.

9

Ez badezu izan nai
edanean ariñ,
esanac esan dira
ta eguiñac equin:
zabiltza cere guisa
ta ortican ibilli
casoric ez egingo
nic astotzar orri.

O A R R A K

- 1) **Eizarianac**. Idazkera, izkera ta erak, Iztuetarenak. Bere dantza liburuan, Iztuetak askotan aipatzen du Idiazabal. Idiazabal dantza zalea zan, izan ere, ta eiza zalea. Zerbaitegatik, Goierrian, "axariak" izengoitia daukate.
- 2) **Erbia jan onduan**. Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak. Asmamen eta zirta aundiko bertsoak.
- 3) **Nere lagun maite**. Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak. Gertaldi onen aitzindaria, Cámara da.
- 4) **Zurrut ("C", orde) zaleari adisquide batec**. Idazkera ez du ematen Iztuetarena danik. Zuzena izaten da. Ta emen makurtua agertzen da. Beste gauz batzuegatik ere bai. Bertsoak, Iztuetarenak izan leizke. Ondoren datozen zortzikoak diran bezela, idazkeraz gorabera.

ANOTACIONES

- 1) **Eizarianac**. Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta: Iztueta habla repetidas veces en su libro de danzas, de Idiazabal, pueblo en que las danzas tenían mucha tradición, y en donde siempre han sido muy dados a la caza. Por algo se les moteja en la comarca del Goyeri de "asharis".
- 2) **Erbia jan onduan**. Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta. Versos de mucha agudeza e ingenio.
- 3) **Nere lagun maite**. Escritura de Iztueta, como también el lenguaje y el estilo. Cámara es el protagonista del chistoso lance.
- 4) **Churrut zaleari adisquide batec**. La escritura no parece ser de Iztueta, que suele ser vertical y aquí es inclinada, aparte de otras características. Los versos pueden muy bien ser suyos; como lo son sin duda los que vienen a continuación en forma de zortzicos, a pesar de la caligrafía.

III.

Lagun artekoak

Amistosos

"...y Ud. conserve su buen humor".

(De una carta de Juan Bautista de Erro desde Azpeitia, mayo, 26. 1833).

"Veo que mantiene Ud. el humor de siempre, bendito sea Ud. e imitado por todos, siendo envidiable su jovialidad en esa edad...".

(Agustín Pascual Iturriaga desde Hernani el 7 de agosto de 1840).

1) VICE-PRESIDENTE

1

Vice-Presidente da
Oyarbide jauna,
mundu guztiac daki
artacoa dana;
emequi eguingo du
artcen duen lana;
bedeinca bedi bera
eguin ceban ama.

2

Capillau dutelari
don Joaquín Campos,
abilla da bera chit
buruz eta zankoz:
prestua ta zucena,
alegreca gogoz,
jantcia arquitzen da
doain eder ascoz.

3

Vocal don Jose Galo
Mendizabal-coa,
guizontasunean da
chit gain gañecoa;
jostaldiaraco prest
beti du gogoa;
ez da erraz billatcen
non-nai alacoa.

4

Don Jose Antonio
Asequinolaza,
onen aldetic ezta
galduco jolasa;
lagun ondraduaquin
egongo da lasa,
secretariotzera
omen zaicu pasa.

5

Lau guizon maitagarri
prestu oen griña,
ezin altza nezaque
bear dan adiña:
alde ascotara da
arras atseguña,
ojala alacoac
guzioco baguña.

2) AY. AU CONSUELOA

1

Ay, au consueloa
daducat nerequin
arquitcen naizalaco
lagun prestuaquin;
maitatcen ditudana
badaquite berdin,
onara etorria
ez det batere miñ.

2

Magdalena izanic
ain santa aundia,
toqui onean zuen
autatu aulquia;
beraren zorionaz
gaitean balia,
ondratzen degularic
gaur Errenteria.

3

Eguia esan gabe
ez nezaque utzi;
gende prestua da chit
Renterian bici;
alcatea coplatu
nai det lendabizi
goi-gora altchazea
berac du mereci.

4

Guipuzcoa oi dabil
beti onen billa
ezaguturic dala
chit guizon abilla;
beraren serbitzari
on izan dedilla,
aspaldi igaro zan
berri au Madrilla.

5

Badaquigu chit guizon
maitatia dala;
igaz Diputadu zan
aurten ere ala;
jaquintsuna da eta
chit colco-zabala,
Jaunac urte ascoan
conserba dezala.

6

Egoquia dalaco
auturik daucate
Errenterian bera
Juez ta Alcate;
gañera Terzio-en
dago comandante;
luzaro bizitcea
ez du inork calte.

7

Eguiteco guztai
aldebat utcita
gustora bear degu
gaur enzun musica:
dama eder batequin
dantzan asi eta
icusi nai nuque nic
emen Sasi (eta) (¿Arrieta?)

3) NERE ADISQUE ON

1

Neure adisque on
irme ta mamia,
artu det izquida, zeuc
euscaraz jarria;
aiñ dago goishoa, ta
ederqui neurria,
iracurten emon deust
atseguin andial

2

Berbatc ezagun da
gizonaren griña,
aguerri da cerala
euscaldun tint piña;
esquer onac emonaz
zeuri asco milla,
gura neuque erantzun,
¡baino ez naiz diñal

3

Espania guztico
jaun, eta jabea,
buru-ontar Fernando
geure Erreguea:
biotzetan daucagu
ondocho gordea,
ezin guentzaque izan
beste bat obea.

4

Bere alaba, anai,
emazte ta guci
urte ascoz dezala
Jaungoicoak bici;
biotzeko mamitio
ez guentzaque ichi,
euscalduna maite du,
¡ez alere guichil

5

Cantauritarrecaz da
itzcuntza eurena,
mundu guzti-guztiam
izan zan lenena;
orainguiñoco-etan
danic ederrena,
¡norc eztaqui gu aen
toquian gaudena?

6

Geuren asaba onac
euscara garbia
gordairu zuten ondo
ceren dan arguia;
aec bezin maite guc
baguendu Erria,
icasola bertatic (1)
legoque jarria.

7

Chori-buru puztuen
lumatzar ariñac,
jalqui izan dituzte
berba latz samiñac:
galtzeco euscararen
erro mardul piñac,
¡baino alperric dira
euren aleguiñac!

8

Gure euscara ezta
burutic jaucia,
sasoyan arquitzen da
oraño gucia:
irabaciric, bidez,
besteci aucia,
aguertuco da noizbait
ederqui jancia.

9

Paulo Urribarrico
gogoangarria,
badaquit ceradela
euscaldun garbia:
Jaincoak deutzatzula
zori-on andia,
zeure gurariraco
naz Echebarria.

4) AU DA FARRAGARRIA

1

Au da farragarria
(enel) vágame Dios!
(agur)e zar zar bati
(bertso) berriok...
(Orain) norbaiti ere
equin bear diot,
(non)dik ote ditudan
(esp)antu andiok.
(Itz)a eman diot
(m)illa amorioz
nagola serios;
ishilduko ditudala
erronca-andiok

2

Bertsolaria zein dan
ezta declaratcen;
sasitik asi zaizkit
arri tiratcen;
uqitu ez banindu
ishillik negoen;
ezdaquit neregandik
cer nai ote duen;
ez naiz ni arren men,
zembat uste duen,
frututik ezagun da
arbola zer den.

3

Uzteguico Arguiña
bertsolari piña,
ba daucac fantasia
conbeni adaña;
oguei ta launa urtez
igual baguiña,
iri coplac ematen
cer tripaco miñal
enioc aitziña;
nai ducan adaña
eguc alegiña;
parti darequin mintza-
tzen aiz, arguiña

(1) Ikastola, Paulo Uribarri'ren ametsa zan.

4

Uztegui-co arguiña,
mortero-guillea,
errodec paratu dec
jardun-bidea;
zarrac ateratzeco
aushen dec tildea!
Jaunac eman gracia
ez al duc irea;
arguintxo noblea,
naiuque nombrea
nic baño obea;
graduren bat falta duc
ik (or) ordea.

5

Arruiz-tar valleko
coplari berria:
(goi)goyeneco mallan
ago jarria,
lurreratu nayeac
agure elbarria;
nere urte joanaz
nai badek bailia,
para juzcaria,
naiz predicaria;
errain dik eguia,
ceñengan guelditcen dan
jakinduria.

5) POEMA MUSICAL

1

Ut, re, mi, fa, sol, la, si
oju, ta garratshi,
musica quizar piña
icasten naiz asi:
zarrabet, chiroi, bolin
txun,txun eta guci
zarzaroco baneza
zerbait irabaci.

2

Brun, brun, quiquiri, tirtrat
gozoac eta miñ,
musicaren puntuac
bear dira jaquin:
batzuec donarioz,
besteac chit ariñ,
prist, prust, brin, brun, ta fite
oi dirade eguin.

3

Seminima, corchea,
fusa, ta calderon
au icustean gueldi
bearco det egon:
turruntun, chiruliru,
tarrapatan, pimpon
guztia jaquitea
quizonak chit du on.

4

Icasi al baneza
nago ni premian
maisú onac daduzcat
Aicheri-Errian:
musica (co) itzcuntza
zar eta berrian
trebe arqitcen dira
nere idurian.

O A R R A K

- 1) **Vice-presidente.** Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak.
- 2) **Ay, au consueloa.** Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak.
- 3) **Nere adisque (adisquide)on.** Idazkera ta izkuntza, Iztuetarenak. Bizkaiko itz eta aditzera batzuk kendu ezker. Idazki onen jabea, Etxeberria agertzen da. Iztuetaren bigarren abizena bait da. 1827-1830 urteen artean, Abandoko perratzaille Paulo Ulibarri Galindez'ekin idazten zala badaikigu. Arremanak ikusi, Balentin Berriochoa anaiaak dakartzianak, Boletín de los Amigos del País'en, XVII urtean. Irugarren kuadernoan, 3-11 orrietan. Donostia, 1961. Jakitekoa, irugarren estrofan datorren "Buru-ontar" Fernando itza. "Bourbon=Buru-on" itz-sustraiarekin. Ta "tar" atzizkiarekin. Jakingarri auetan gure denborai aurreratzen zala.
- 4) **Ay, au farragarria.** Idazkera, izkuntza eta bertso auetan agiri dan izakera, Iztuetarenak. Aurreneko apaldia ezkerreko ertza ondatuta dauka, ta erabat osatzerik ez dago, zoritxarrez. Laugarren estrofan lenengo bertsoa erren dago, ta "ta" bat jarri zaito. Seigarrenak "tildea" bat dauka, ta zer izan leiken ez dakigu.
- 5) **Poema musical.** Idazkera, izkuntza ta egikera, Iztuetarenak. Bertsoak, dantza eresici eratzeko, Pedro Albeniz eta Manuel Larrarte'kin ibilli zaneakoak?

ANOTACIONES

- 1) **Vice-presidente.** Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta.
- 2) **Ay, au consueloa.** Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta.
- 3) **Nere adisque (adisquide) on.** Escritura y lenguaje de Iztueta, salvo alguna que otra forma verbal y alguna palabra excepcional en vizcaíno. Observará el lector que el autor en la composición se declara Etxeberria. Es el segundo apellido de Iztueta. Sabemos que mantuvo correspondencia con Paulo Ulibarri Galindez, el herrador de Abando, entre los años de 1827-30. Véase correspondencia por el Hno. Valentín Berriochoa, F.S.C. en el Boletín de los Amigos del País, año XVII, cuaderno 3.º, págs. 3-11, San Sebastián, 1961. Curiosa la palabra Buru-ontar Fernando de la 3.ª estrofa, con la famosa etimología de los Bourbon=Buru-on y el sufijo **tar**, anticipándose a los que luego se habían de prodigar tanto en nuestros tiempos.
- 4) **Ay, au farragarria.** La escritura, el lenguaje y el temperamento reflejado por estos versos, son de Iztueta. La primera estrofa tiene el margen izquierdo estropeado y es lástima que no se pueda reconstituir sino en parte. En la estrofa 4.ª el último verso queda cojo; el sexto verso tiene un **tildea** que es como **zipoka**, tentación.
- 5) **Poema musical.** Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta. ¿De sus tiempos con Pedro Albéniz y Manuel de Larrarte para acomodación de letras a las melodías de las danzas?

IV.

Amodiozkoak

Amorosos

"Iracurtudet bedorren papera, eta biyurzendiyot milla eta milla esqueric-ascorequin. Atcequin andiya eman dirate bedorren gaztetazuneco amoriyo-zamurrac. Ez nuben-bada orainquizaño iracurtu orrelaco vertzo-ederric gure eusquera garbiyan...".

(Joaquín María Berrenecoa desde San Sebastián el 25 de junio, 1840).

1) CONTZECIRI

Maitebat maitatzen det maitagarria
Begui ederra du ta guztiz arguia;
Daucat urruti,
Bañan ezin quendu det buruti
Aren ichura;
Saldu albaliteque pisura,
Urrearen truque
Norc erosi faltaco ez luque.
Norc erosi, etc.

Oguelta lau leguaz nago aparte,
Bitartean ba dauzcat milloi bat ate,
Guztiac ichiric;
Nai arren ezin egon ixillic;
Beti negarrez,
Nere maite maitearen galdez:
Otedan bici,
Biotz-biotz nereco Contzeci,
Biotz-biotz nereco, etc.

Egunaz argui guchi, gauean illun,
Consueloric ez da neretzat inun
Maitea gabe;
Eguin otenadiñ aren jabe
Oroitutzean,
Cembait pena nere biotzean
Ditut igaro;
Maite det eta ez da milagro,
Maitet det eta, etc.

¡Ay au bacardadea eta tristural
Nere biotz gaxoa ecin piztu da,
ain dago illa;
Beti dabil consuelo billa;
Bere artean,
Banengo maitearen aldean,
Orducho bico,
Pena guztiaz liraque ilco.
Pena guztiac, etc.

Nere maitea zuzaz ni oroitzen naiz
 Egunaz ere baita gauetan chit maiz,
 Lotan ere bay;
 Zu icusitzera nic joan nai;
 Libre banengo
 Or nintzaque egun bigarreno,
 Naiz orduan ill,
 Ez nuque izango batere miñ.
 Ez nuque, etc.

Leneco gau batean eguin det amets,
 Bañan pentsamentuac beti al reves
 Irteten dira;
 Ustez nengoen zuri beguira,
 Maite polita,
 Cofrearen gañean jarrita,
 Contu contari,
 Nai nuen bañan ez nintzan arl.
 Nai nuen bañan, etc.

Maite nerea daucat beti gogoan:
 ¡Ay orain banengo ni aren alboan
 Iñoiz bezalal
 Jaunac amets au cumpli dezala,
 Balitz conbeni,
 Consueloz ilco nintzaque ni
 Nere ustean,
 Maitechoren biotza icustean.
 Maitechoen biotza, etc.

Nere maite polita ez da cer etsi,
 Bigar ez pada ere or nazu etzi
 Lengo lecuan,
 Allegatutzen naizan orduan,
 ¡Ay ura poza,
 Nere maite maitecho biotzal
 Zuri beguira,
 Pena guztia aztuco dira.
 Pena guztia, etc.

Zure gauza polit bat oi det nerequin,
 Izquidaturic dago letra birequin:
 C ta B dira,

Ascotan nego oei beguira;
 ¡Ain dira piñac!
 Maitecho polita, zuc eguiñac
 Sedaz ederqui;
 Colcoan gorderic dauzcat beti.
 Colcoan gorderic, etc.

Esperantzetan bici, maite gozoa,
 Noizbait cumplituco da gure plazoa;
 Eta orduan,
 Gauza charric ez artu buruan;
 Lengoi utzi,
 Ez degu pasatzen pena guchi;
 Preso sei urtez
 Onduco gaituzte nere ustez.
 Onduco gaituzte, etc.

2) ATSEGINETAN ARQUITCEN NAIZ

1

Atseguñetan arquitcen naiz ni
 arquitcen naiz ni
 ezcontzen diralaco maite gozo bi
 gustora
 artaco jaio ciran mundura
 Guipuzcoa guztia chit poztu da.

2

Alayac dira ezcongay biac
 ezcongay biac
 diralaco euscaldun garbi garbiac
 zañeti
 ecusten dan gauza beti beti
 fruta pin gozoa chertu oneti.

3

Jatorri ona irozo dedin
 irozo dedin
 ezcontza naigarri au gogoz da eguin
 segurqui
 doai au etorri zaye ceruti
 ala bearez bide zucenet.

4

Don Pedro Jose bai Iturriza
bai Iturriza
Azpeitian equin du gustoco eiza
emequi
tirabidean jarriric zuzenqui
gauza ona cer dan berac badaqui.

5

Galay prestu au pare bague da
pare bague da
artcen du emaztezat Doña Agueda
maitaro
gau gozo anitz ditzeque igaro
aren enbidian zembait badago.

6

Emazte eder ta aberatsa
ta aberatsa
guizona, badagoque onequin lasa
munduan
guerra gaizto au bucatu ondoan
pozquidatuaz beraren alboan.

7

Seme galantac eta chit anitz
eta chit anitz
eraquiteco eran jarrico balitz;
nai nuque
aitaren anza izango balute
Guipuzcoac guztiz mesede luque.

8

Ecusico da bici baguera
bici baguera
seme askoren ama Doña Agueda
errian
Iturrizaz beteric ur garbian
echeandre enitzen enbidian.

9

Lanari gogoz lembaitlen equin
lembait-len equin
asi bague ez baidu izango berdin
batere,
elizac artaco jarriac daude
ez arren guelditu semeric bague.

10

Gau ta egun oso guztiac
oso guztiac
Iturrizac daduzca gozo eztiac
benetan
lenago ibilli baita nequetan
baita ere asco aldiz quezquetan.

11

Orain batere beldurric bague
beldurric bague
equin dalaco andre onaren jabe
erazqui
gusto onecoa artu du lazqui
dicha on asco berarequin daucazqui.

12

Agur Don Pedro Brigadaria
Brigadaria
guztiz toqui onean dago jarria
betico
daducan onorea, nerequico,
ez dio inorc ere ereguico.

3) AMODIO BEROAC (1)

Zortzicoan

1
Amodio beroac
guztiz arrigarri,
nere biotza dauca
estu eta larri:
adirazo nayeac
argui eta garbi,
nere sentimentuac
dama eder bati.

2
Biotz biotz nereco
chanchancho arguia,
esango dizut nere
barrungo barria:
gaztetan izandu naiz
arras jostatia,
bañan naitasunaren
guztiz beldurtia.

3
Amodiozco su gar
portitzen iguesi,
oraindaño, maitea,
izandu naiz bici:
bañan zure ichurac
zain odol ta guci,
arras beti betico
biotza dit josi.

4
Nere maite maitea,
ustez ustecabe,
betico eguin zaizquit
biotzaren jabe:
iltze gogorraz ondo
loturic alere
nere corde guztiac
gueroztican daude.

5
(Ikusi) albacentza
jarriric beguira
nere biotz gaishoan
dagoen erida:
batean bazterrera
bestean erdira,
gorputz guztian dabil
jira eta bira.

6
Egunaz ere bai, ta
gauaz asco aldiz,
nere odolac pill pill
iraquiten dabiltz:
ishurico nituzque
ala bear balitz,
maite zaituralaco
biotzetic anitz.

7
Aingeru gazte eder
goisho eta piña,
zu maitatuzeco da
beti nere griña:
sendatu albacenza
nic daucadan miña,
nere biotz gaishoac
ah cer atseguina!

8
Maite maitagarria
zugana beguira,
nere biotz biguña
urtutzen ari da:
egun oetan guztiz
estu ta larri da,
azal uts biurturic
nequetan jarri da.

9
Biotz biotz nereco
maitati maitea,
nere pena andiaz
urriqui zaitea:
zure escuan dago
nere izatea,
indazu osasuna
ta atseguin bete.

(1) Amodioac lotua daucan galay gazte lirain batec, biotzaren erdi erdico mamitic chit asco nai dion dama eder bati biraltzen diozcan itzneurruac.

10
Nere maite polita
iñolaz albada,
ez nazazula arren
penaturic laga:
zu maitatzeagatic
ala bear bada,
bicia utzico det
orain bereala.

11
Galdu arren bicia
secula betico,
amodioa ezdit
iñorc erequico:
zu maitatu bague nic
ez nuque etsico,
biotzaren mamitic
etzaitut utzico.

12
Ezur ta mami oso
zain odol ta guci,
maite zaitut maitea
ez alere guchi:
naitasun bero oni
ez ateric ichi,
zure albo gozoan
nai nuque nic bici.

4) AMODIOA CER DAN

1
Amodioa cer dan
azaltzeco ongui,
canta berri eder bat
jarzera noa ni:
munduac jaquitea
guztiz da combeni
nola bizitu diran
chanchancho gozo bi.

2
Badaquigu dala chit
gozo ta ezta
enamoratutako
gazteen bizia:
duda bague da oen
atsegin guztia,
eraz eta sarriro
alkar ikustia.

3
Biotz bi unituak
maitaro alkari,
lantzandurik betiko
oi dirade jarri:
atsegin andietan
guztiz arrigarri,
itz goishoac esancz
batak besteari.

4
Aditutzean batak,
bestearen itza,
bien biotzak pozez
pill pill pill dabilzta:
eztitan oi dabillen
euliaren guisa,
¿ceñek gozatutzen du
onelako dicha?

5
Zoriontasun andi
gozo onen jabe,
Guipuzcoa onetan
bi gazte ba daude,
elizaz unituak
gustora alere,
iñorc prenda artzeko
beldurrikan bague.

6
Gogoratu zait neri
garbi esatea,
amanteak nor diran
bata ta bestea:
zarauztar Don Juan Jose
Alzuru gaztea,
ta Doña Mariana
bere emaztea.

7
Chanchancho maitati au
dalako alaya,
beti beti izanda
guztiz askok naya:
batetik ederra da
bestetik ernaya,
jezta erraz billatzen
onelako gayal

8
Aitortu bear bada,
garbiro egia,
dama polita da ta
guztiz egokia:
goiz aski bota zion
Alzuru begia,
artu ere bay ongui
goruntzen neurria.

9
Amasei urterekin
txit gain gañekoa,
Doña Mariana zan
guri sasoikoa:
begia txir txir, eta
alegre gogoa,
¿nork maitatuko ez du
ciñez alakoa?

10
Milla zortzi-eun ogei
ta bederatzian,
chachancho goisho oec
laztandu cirean
pena asko pasarik
bay zazpi urtean
ezkondurik daude gaur
pozkida betean.

11
Amante oek nola
izan diran bizi
ikusit bage ecin
lezake sinitsi
Alkarganatu naita
iñok ez nai utzi
egun gozo au nekez
bait dute iritsi.

12
Naitasun geyegia
izanik alkarri
ikusit dute zenbait
estura ta larri
baita igaro ere
pena arrigarri
ezkondurik gustora
diran arte jarri.

13
Ezkontzeko denpora
danean iritsi
ez dute bada izan
atsekabe gutxi
Azpeitian egon ta
apartean bizi
nai arren ezin alkar
gustora ikusi.

16
Abuztuko illaren
bigarren eguna
amante oentzako
etzan txit illuna
orduan izan dute
guztizko fortuna
Jaungoikoak diela
beti osasuna.

5) DOCEN ERDI BAT VERSO

1
Docen-erdi bat verso
bear ditut jarri
erregalatuzeco
dama-galay biri:
guztizco naitasuna
diote alkarri,
non ta nongoac diran
esango det sarri.

2
Andoain-en dago bat,
Tolosan bestea,
gustatuzen zaye maiz
elcar icustea:
dama ederra da ta
galaya gaztea
ez ta gaizqui izango
onen emaztea.

14
Berronkalkoan bata
Ibiron bestea
poz andia zuten txit
alkar ikustea
eguna alegre ta
gaua txit tristea
gogoratu zitzayen
argiak piztea.

15
Gauaz eta egunaz
alkarri begira
loaz oroitu bage
ernai egon dira
au izan da chachancho
goisho oen ira (jira?)
plazan ibilli arren
zezenen korrira.

3
Gazte maitati oec
chit ditut urriqui
batac bestea vistan
nai dute iduqui:
aspertu baguetanic
gau ta egun beti,
Andoain-dic Tolosa
ez dago urruti.

4
Galay au nor dan iñorc
nai baluque jaquin,
apellidua Imaz
icena du Joaquin:
artutaco sallari
gogoz zayo equin,
gusto obeco lanic
ez dezaque equin.

6) MUNDU GUSTIAN DAUCA

1
..... a da
guztiz egoquia
aspaldian cembaites
gogoan euquia:
contentu da galacia
orobat novia,
¡Ah ceñec leucaqueam
gaur oien toquia!

2
Mundu guztian dauca
guizon prestu fama,
Don Jose Francisco da
Arrieta jauna:
zuzen equiten badu
artu duen lana,
¡zoriontsu da orren
jabe equin dana!

5
Maria Micaela
de Elorriaga,
dama maitati eder
zurigorria da:
Imaz-ec beretzaco
nai luque al bada,
ezta non-nay billatzen
alaco alaba.

6
Tolosa-ra joaten
billatzeco bera,
Echarri-ren bitartez
izaten du era:
iñoz icusi ditut
gustora daudela,
Joaquincho Imaz eta
Miquela ederra.

3
Ongui daquigu nor dan
eta nolacoa,
Doña Mari Antoni
Bidaola-coa:
berez alaia da, ta
sasoi onecoa,
¡non arquiteu beste bat
au bezelacoa!

4
Gazte gaztetatic da
doañez (1) jancia,
bere amac alboan
guriro acia:
Jaungoicoac emanic
alaco gracia,
¡goisho ta maitati da
esan al guzia!

(1) doañez = virtutez.

5

Ezcontz au icusiric
oien gurasoac
atseguñetan daude,
orobat auzoac:
Jaincoari eguiñaz
erregu gozoac,
izan ditezen beti
garbi ta jasoac.

6

¿Ceñec eguingo ez du
pozquidaz algara?
jnere gogoa beintzat
gaurcoan ala dal
Jaunari escaturic
iñolaz al bada,
izan ditzaten asco
seme ta alaba.

7

Burnia equiteco
beti da autua
Olaco sutan arri
ongui berotua:
ugari emango du
arc bere frutua,
lenago sarrihotan
ez bada urtua.

7) NOIZ IZANGO OTE DITUGU

Noiz izango ote ditugu
orren ezteiac?
Lenic bota bear deiac
badaquit dituena galac
ordea ez dira erraz ase-
tzen orren naiac.
Zartzen asi ezqueroco galaiac
jah cer amorraiac!
nequez arrapatu sare lasaiac
ain dira ernaiac.
Noiz edo noiz itsutzen ditu
ur loiac
diradelaco chisarecoiac;
ascocho jan ta garrasi ta
orroiac
irabiatzen dituzte beac eta
goiac.

8) IZTUETA'REN ESKUTITZA

Agustin Pascual Iurriaga'ri

1

Nere adiskide txit
prestu ta argia:
artu baitet bedorren
karta pozgarria;
aiñ zegoen gozoa
ta ongi jarria
ez da bedorrenzat au
mirari aundia.

3

Erri aundi oetan
askotatik gutxi
senarrarekin ongi
oi dirade bizi;
batzuek zatika ta
besteak igesi
ezkondu bezin laister
oi dituzte utzi.

2

Ezkontzak izan oi du
asko langai modu,
batean irabazi
ta bestean galdu;
alaba utzitzea
ez nuke aiñ damu,
baldin senarrak ongi
maitatutzen balu.

4

Egin ezkeroztanik
alakoen jabe
eraman bear ditu
zenbait atsekabe.
Neska zar egoteaz
ere lanac daude
iñork ez nai gelditu
bat edo bat gabe.

Nere adiskide mamia: txit etorri da bedorren karta egokia, ta den-
bora bear danezkoan, zeñaren zati guztiak azaldu diozcadan nere ala-
bari (1), gure adiskide jakiñen aurrean, eta serbizatu sermoirik onenak
baño ere geiago. Ez det lekurik gaur. Bedorrena beti, Iztueta.

(1) "Ezkontza" deritzan bertsoetan aipatzen da Bautista Garralda.

Ignacia, Iztueta'ren eta bere bigarren andre Kontxesi'ren alaba, 13, 7, 1806 jaio zan;
eta ezkondu Azpiazu'tar Jose Antonio'rekin 3-3-1828, Donostia'n.

Alaba au aitarekin bizi izan zan, eta Iztueta bera illabete gero, 8-4-1828 ezkondu
zan, Irugarren aldiz, Asuncion Urrozola'rekin. Kantan noski alaba au aipatzen da.

Onela erantzuntzian Iztuetak Pascual Iturriaga'ri, ceñek biralduzian berso oek:

Dabidek, zartu eta
Sunamita artzeko
esan zian zuela
oñak berotzeko.
Adiñ ortan, Batista,
dek askoz ohea
Palenziako manta
ez andre gaztea.

Ez badu gauza orrek
erremediorik
jartzak konsejutxo bat
gaur nere aotikl
Esnatzen aizenean
goizean lotatik
ostikoka botazak
andrea aldetik (1).

9) NERE MAITE POLITA

1

Nere maite polita
zutzat oroitzian
odola pil-pil dabil
nere biotzian,
Kampora irten nairik
alegiñ guzian;
miñ onek bearko du
sendatu iltzian.

2

Amoriyoz biotza
daukat nik zulatzen;
zuregatikan zenbat
detan nik sufritzen!
zergatikan ez zera
zu nitzat kupitzen?
Zuregatik ari naiz
ezur uts gelditzen.

3

Maitasunak indarra
artzen dubenian
erruak uzten ditu
biyotz barrenian;
zuretako jayo naiz
zuretako azi,
zuregatikan nai det
mundu ontan bizi.

10) MANUELATXO

Belaunikaturik
zure aurrean nago,
nai zenduen gisan,
alkarren jabe
zuk nai badezu
egin gaitian elizan.

(1) Bi bakarrik ipintzen ditugu emen. Beraz, sei dira.

11) EZKON BERRIAK

Zorioneko ezkon-berriak,
alai ikusten dituzuen begiak
"pil, pil, pil"
mingaña ixil biotzak itz-egin
lo pixkatxoren bat nai dute egin.
Lotartzean orain ta beti
Jaungoikoaren legea zuzen eduki
gogoan.

Etsai guztiak garaitu ondoan
bera egon dedin zuen alboan.
Oeratzean, ai ura pozal
Gozotoro esanaz maite biotza
alkarri.

Esker onak eman Jaungoikoari
nai eran zaituztelako jarri.
Itzaldi goxo ezti eztiak,
gau artan oi dirade guzti guztiak,
emeki (1).

(1) "Viejas canciones donostiaras. Donostiko kantu zarrak", pág. 106, 170 y 202. Jesús María Arozamena y Tomás Garbizu. Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 3.ª edición. Liburu ontatik artu ditugu "Nere maite polita", "Manuelatxo" ta "Eskon berriak".

O A R R A K

1) **Contzeciri**. 1825'an, Pablo Mendibil erbestetaren bidez Londres'en argitaratu zan liburuxka batean, aña ezaguna dan olerkia, Iztuetak berak bere eskuz idatzitakoa, ta jabeak egindako erderazko itzulpenarekin, Bilbaon dago. Olerki onen ikerketa bat, 1877'ko Jose Manterola'ren "Cancionero Vasco"n arkitzen da. (Serie 1.ª, tomo 1.º, 39 ta ond. orr.) 1844 arte etzala argitaratu esaten duana, egia ez baldin ba-da ere. Ezta ere ez da egia, "la melodía de esta canción incluida por Iztueta en su álbum de bailes y cantos populares, y que se cree sea como la letra, composición del mismo". Aipatutako liburuxka ortan esaten bait zaigu, "además procuró con ella introducir en la poesía vascongada la medida de cierta canción castellana conocida con el nombre de "Churripampli", que en aquel tiempo se cantaba mucho en todas las provincias de España, y había también penetrado en Guipúzcoa, usurpando los derechos del antiguo zortziko".

Baita ere ikusi ontarako, Manuel Lekuona jaunak "Zeruko Argia"n egiten duan ikerketa gai ontaz. Baita "La Gran Enciclopedia Vasca"ren III liburuko 1.º eta 2.º liburuxkak, 72-73 orr. 1968'ko mayatzaren 15'an. Antxe dago Kontxesi-ikerketa Joxe Garmendiak egina, Manterola jaunaren itzulpen eta azalpenen ondorean.

2) **Atsegiñetan arquitzen naiz**. Idazkera, izkera ta tankera, Iztuetarenak. Bertso ausiaren beste eredu bat.

3) **Amodioac lotua**. Idazkera, izkera ta eraikera, Iztuetarenak. Dantza eresien liburuko bertsoetan, askotan irtetzen da "chachancho" itza. Aita Santiago Onaindiak, au ta urrengo olerkia, euskerak dauzkan maite-miñezko eun olerki onenetan, sartzen ditu.

4) **Amodioa cer dan**. Idazkera, izkera ta eraikera, Iztuetarenak.

5) **Docen erdi bat bertso**. Idazkera, izkera ta eraikera, Iztuetarenak. Berdiñ, "Mundu gustian dauca", ta "Noiz izango ote ditugu".

8) **Iztuetaren escutitza**. Be-aldean daude oarrak. Berdiñ, Arozamenak bildutako amodiozko gaiñentzeko bertsoetan.

ANOTACIONES

1) **Contzeciri**. Se conserva en Bilbao el original de puño y letra de Iztueta de esta tan popularizada poesía con su correspondiente versión al castellano, también con letra del autor, en un folleto que por medio del exilado Pablo de Mendibil se publicó en Londres hacia el año 1825. Un estudio de esta composición en "Cancionero vasco" de José Manterola, de 1877 (Serie 1.ª, tomo 1.º, págs. 39 y ss.), aunque no es verdad que "la melodía de esta canción incluida por Iztueta en su álbum de bailes y cantos populares, y que se cree sea como la letra, composición del mismo". En el mencionado folleto se nos dice que "además procuró con ella introducir en la poesía vascongada la medida de cierta canción castellana conocida con el nombre de "Churripampli", que en aquel tiempo se cantaba mucho en todas las provincias de España, y había penetrado también en Guipúzcoa, usurpando los derechos de antiguo zortziko".

Véase también el estudio de D. Manuel de Lekuona en "Zeruko argia", así como el tomo III, fascículo 1.º y 2.º, 15 de mayo 1968, págs. 72-73 de La Gran Enciclopedia Vasca, noticias de Conchesi, debidas a José Garmendia en apéndice, tras los comentarios y traducción de Manterola.

2) **Atsegiñetan arquitzen naiz**. Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta. Otro ejemplo de verso quebrado.

3) **Amodioac lotua**. Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta. En las letras del libro de las melodías de las danzas se repite mucho la palabra "chachancho", El P. Santiago Onaindia incluye ésta, como lo que sigue, entre las cien mejores poesías de amor de la literatura euskara.

4) **Amodioa cer dan**. Escritura lenguaje y estilo de Iztueta.

5) **Docen erdi bat bertso**. Escritura, lenguaje y estilo de Iztueta. Dígase lo mismo de "Mundu gustian dauca" como de "Noiz izango ote ditugu".

8) **Iztuetaren escutitza**. Anotaciones al pie de la misma, así como de las restantes de estos versos amorosos, recogidos por Arozamena.

Dantza eresien liburuaren itzak

Letras del libro de las melodías de las danzas

"...veré con mucho gusto (si Ud. envía) la música de nuestros apreciables soñus sarres y aunque no entienda de música haré que un inteligente me cante para calcular si es cual yo he oido, y sé algunos; no deje Ud. de la mano el asunto de la impresión del cuaderno, aunque sea por suscripción, muchos lo comprarán y podrá ser muy útil..."

(El vergarés Santiago de Unceta, diputado a Cortes en carta de 1 de julio de 1824).

"Jaquindet Larrategandic molderatcecoac dirala sarri aurrecoac dantzaten zituzten soñu zar berorrec biribillatu dituenac, baita ere beren itz neurtuac..."

(A. Pascual Iturriagac Donostitik Iztuetari garillaren ogeita hostean 1824).

"Ya que no copió Ud. los versos renglón por renglón, no es extraño que me haya engañado en su medida. Los hará cantar a D. Manuel (Larrarte) y diré a Ud. mi dictamen".

(De una carta de A. P. de Iturriaga desde Hernani al 12 de marzo de 1824 (?). Sin duda estas líneas hacen referencia a las letras del libro de las melodías de las danzas).

"Historia de los antiguos bailes guipuzcoanos, y reglas instructivas para ejecutarlos bien, y **cantarlos en verso**" Iztuetaren liburuari (1), Jose Ramon Elorzak ontzakoa eman zionean, dudik gabe, 1750'ko epaillaren 12'an, Iruña'ko gotzai Gaspar Miranda Argaiz jaunak, agiriko dantzak galerazteko eman zuan agindua bete naitaz, ala idazten du: "...pero por desgracia una diversión inocente... ha llegado a ser el escollo fatal de la inocencia, la red barredera, que envuelve y enreda a la incauta juventud, el foco principal de amistades peligrosas, y de consiguiente el fecundo origen de la corrupción de costumbres, meneos y ademanes..."

Gero Iztuetaren liburuari au erasten dio: "Sólo hallo un reparo, que no me parece pertenece al fin principal de ella, sino a lo más a su perfección accidental. Hablo de varios versos que cantados en una taberna o en medio de un grupo de gentes, que generalmente concurren a oírlos, sería poco el escándalo, que podrían causar, pero estampados en un libro dado a la prensa, repasados y estudiados por la incauta juventud, y cantados con frecuencia entre jóvenes sencillos, acarrearían mucho daño por los equívocos sentidos de **muchos** de dichos versos, que a la simple lectura ofenden el pudor y la honestidad. Así, sobre ellos soy de sentir, que si el autor los considera por parte esencial al fin y al objeto principal de la obra, sustituya otros indiferentes que no sean **materia de amor**, y cuando no, borre de la obra todos los que van anotados con una manecilla al margen de cada uno de ellos. Este es mi sentir, porque en lo demás no encuentro cosa que se oponga a nuestra santa Fe y Religión ni a las buenas costumbres. Azcoitia y septiembre, 18 de 1824".

Tamalgarría benetan eskuz idatzia galdua izateal

Iztuetak, berak egin zuan oarrea, onela adierazten du: "Obra onen zatirik gucienetan agindu deran bezela, jarriac neuzcan soñu-zar gogoangarrien itz-neurtuac: baño Correjidore jaunaren agindua egitearren (beraren licenzian ikusico dezuten bezela) ez ditut ezarri".

Apaz azterlearen arkuari gure Iztuetak, muzkeri bat egiñaz, azkarkeri onekin erantzun zion. Liburuaren azkenean, amarreko 26 aapal-

(1) Imprenta de R. I. Baroja, San Sebastián, 1824.

En la aprobación de D. José Ramón de Elorza a la "Historia de los antiguos bailes guipuzcoanos, y reglas instructivas para ejecutarlos bien, y **cantarlos en verso**" (Imprenta de R. I. Baroja, San Sebastián, 1824), haciéndose eco sin duda del edicto en que se prohíben los bailes públicos y danzas por el obispo de Pamplona don Gaspar de Miranda y Argaiz con fecha de 12 de marzo de 1750, se escribe: "...pero por desgracia una diversión inocente... ha llegado a ser el escollo fatal de la inocencia, la red barredera, que envuelve y enreda a la incauta juventud, el foco principal de amistades peligrosas, y de consiguiente el fecundo origen de la corrupción de costumbres, meneos y ademanes..."

Añade después esto al contenido del libro de Iztueta: "Sólo hallo un reparo, que no me parece pertenece al fin principal de ella, sino a lo más a su perfección accidental. Hablo de varios versos, que cantados en una taberna o en medio de un grupo de gentes que generalmente concurren a oírlos, sería poco el escándalo que podían causar, pero estampados con frecuencia entre jóvenes sencillos, acarrearían mucho daño por los equívocos sentidos de **muchos** de dichos versos, que a la simple lectura ofenden el pudor y la honestidad. Así sobre ellos soy de sentir que si el autor los considera por parte esencial al fin y al objeto principal de la obra, sustituya otros indiferentes que no sean **materia de amor**, y cuando no, borre de la obra todos los que van anotados con una manecilla al margen de cada uno de ellos. Este es mi sentir, porque en lo demás no encuentro cosa que se oponga a nuestra Santa Fe y Religión ni a las buenas costumbres. Azcoitia y septiembre 18 de 1824". Es una lástima la pérdida del manuscrito.

En "oarkerra edo adbertentzia" lo confiesa Iztueta con estas palabras: "Obra onen zatirik gucienetan agindu deran bezela, jarriac neuzcan soñu-zar gogoangarrien itz-neurtuac: baño Correjidore jaunaren agindua egitearren (beraren licenzian ikusico dezuten bezela) ez ditut ezarri".

Ni corto ni perezoso con la advertencia, nuestro Iztueta jugó una pasada al eclesiástico censor. Puso al final del libro 26 estrofas de a

(1) Los subrayados son nuestros.

di jarri zituan, "Nere cristau maiteac" izena zutenak. Erriko agintariak eskeiñita zeuden (2). Itxusiak ziralak, "corregidoreak" kentzeko ta beste batzuk jartzeko agindu zizkionen ordez, jartzen zituan.

Dantza eresien jatorrizko liburua ez degu ezagutzen. Nun dagoan ere, iñork ez daki. 1877'ko "Cancionero Vasco"an Manterola jaunak dionez, 1826'an, bere iru ate-aurre ta guzti, argitaratu zan 35 orri aundiko liburua ere, ez degu aztertzerik izan. 1824'ko dantza liburuaren osagarri bezela zetorren, eta aituta dago. Berriz ere aldundegi edo diputagarri liburutegira joan gera, bere txartela an dagon ezkerre. Baiñan, Jose Artetxe jauna an lanean asterako, zoritxarrez azkeneko alea izkutatuta zegoen.

Orregatik, Gipuzkoako Aurresti Kutxak egin duan ateraldia erabilli izan bear degu. Bera ere, "Sociedad de Estudios Vascos"ek, 55 orritan atera zuanaren bir-argitaraldia da. Ta, Burdeos'en Landais jaunak ezarri zituan, 52 ereski dauzka. 52 eresi auetatik, ogei ta hamarrek bakarrik daukate itza. Gaiñentzeko ogei ta biak, itzik gabe daude.

Itz-aurrean, beste gauzen artean, Iztueta au dio: "en las diversas composiciones, se descubre el **amor del pueblo bascongado al bello sexo**; pero de un modo, que sin salir de los límites de una decorosa moderación, previene en favor de la genialidad de sus habitantes".

Auraxerago, dio: "En la música que publico ya con palabras, ya sin ellas, y aplicada especialmente al baile, se notan un giro y una animación que indican la agilidad y vigor de los habitantes de estas montañas".

Eta jarraitzen du: "**No diré que todos los retazos que he reunido, sean de una remota antigüedad; pero muchas, es evidente que la tienen, y conviene no perder de vista que algunos son marchas guerreras que acaso inflamaron el ánimo de nuestros más remotos antepasados, y acompañaron sus esfuerzos para repeler el yugo extranjero y transmitirnos la dichosa independencia y paternal gobierno de que gozamos**" (3).

Gaurkoa, "**Ondarrabia chiquia**" bakarrik dala, dio.

Eta au esanaz bukatzen du: "Que reunió a varios que las cantasen, y que la laboriosidad del organista de Hernani (4), D. Manuel de Larrarte, proporcionó al distinguido profesor D. Pedro Albéniz (5) la ocasión

(2) Ikus 53-56 orriak. Eta aldakuntzak 51-53'an. Zaldibi'n idatzi bear izan zituan. Bestek baiño dotoreagoak eta ikasiagoak dira.

(3) Guk azpimarkatzen degu.

(4) Agustín Pascual Iturriagak, beste bi maixuakin, Hernanin ikastola bat eratu zuan. Bere anai Kayetano ta Manuel Larrarte, gipuzkoarr musikari on bat. (Gregorio Muxica).

diez, tituladaas "Nere cristau maiteac" y que están dedicadas a las autoridades de la provincia (2). Compensaba de este modo la indecencia de los versos señalados con una manecilla que debía suprimir, por no esenciales a la obra.

En cuanto al libro de las melodías de las danzas, no conocemos el original, ni se sabe dónde para. Tampoco hemos podido consultar el volumen en folio de 35 páginas, más tres hojas de portadas y preliminares publicado en 1826 y agotado, como dice Manterola en su Cancionero Vasco de 1877, y que venía como complemento al libro de danzas de 1824. Hemos acudido de nuevo a la Biblioteca de la Diputación donde figura la ficha, pero ya antes de su ocupación en ella de José de Arteche, no figuraba ningún ejemplar de esta primera edición. Desapareció por desgracia.

de premio para la que anteriormente tiene publicada sobre las danzas
y canciones antiguas del país...".

Bastan estos testimonios, para caer en la cuenta de que Iztueta
hacia mucho tiempo que venía preparando esta historia de Guipúzcoa,
la primera en vascuence, y que puso mucho empeño en ello. Termina
cada capítulo del libro con una estrofa de cuatro versos. O sea, que
Iztueta quiso resumir cada capítulo en una estrofa, haciendo un canto

ko kondaira osoa kanta bat egiten zuala. Bere zartzaroan, kondairaren bilduma bat ziran estrofa, kanta marmarrean abesten zituala... Agian, erriak Gipuzkoako kondaira bertsotan jakin eta abestuko zuala pentsatzeak, ematen zion pozarekin... Etziran bete bere naiak... baiñan, emen dauzkatzu, irakurle, Iztuetaren kondaira-berstoak.

Bere gaztetasunean egindako bertsoak denborarekin obeagotzen arituzan bezelaxe, (eta gauz onen agiri garbi askoa, dantza liburuaren bukaeran agintariari eskeñi zizkienetan, eman degu) beste orrenbeste gertatu zitzaion bere Gipuzcoaco Condairako batzuetan ere.

Zaldibi'ko Erriko-Etxeko liburuetan, auntza ta landaretegieta 1799'ko ilbeltzaren 7'an emandako agindu bat, gordetzen da. Kulpitutik irakurri bear zan, erriko elizan. Sororen batean ikusten ziran auntz guztiak, garbitu egin bear zirala esaten zuan (1).

Agindu au zala ta, Iztuetak bertso batzuk egin zituan, eta gero bere "Condaira"n sartu zituan. Ori aipatu nai du, dionean: **"Auntzac ascori ematen dio bicia, / berari ipiñi arren iltceco sententia"**.

Bikaiñ borobildutako bertso mamitsu ta aberatsetan, Iztuetak ibillketa luze bat egiten du Guipuzkoa zear, gure erriaren izakera ta aunditasunak bildu ta kantatzeko. Etengabeko kanta sutsu bat dira. Guipuzkoari eskeintzen dion lore-sorta eder eta polit bat. Irakurlea laister konuratuko da, au onela dala.

**"Provinciaco gende leial ta arguia
maite dezutelaco ceuen sort-erria
ezquiñitzen dizutet euscaraz jarria
Ama Guipuzcoaren bicitza garbia" (2).**

Bitxi auek denak bildu ta alkartzea bearrezkoa zan noski. Alkarren-gandik sakabanatu ta utsunerik gabe, danak errezkadan irakurtzeko. Alaxe egiten alegindu gera. Danak daramate beren atalari dagokion izen-burua.

(1) "31 de agosto de 1798. Por decreto de la junta quinta de las generales celebradas en la N. y L. villa de Zarauz por julio próximo del año pasado por el que se manda el exterminio de yeguas y cabras y dijeron súplica al Sr. Vicario de esta parroquia a fin de que sirva de hacerlo desde el púlpito".

(2) Burdeos'en, Haritschelhar jaunak gure erriaren kondairaz eratu zuan batzar batera, Koldo Mitxelena jaunak, "Iztueta, testigo político de su época" izen-buruarekin, lantxo bat bidali zuan. Lan au, Mitxelena jaunak, neri bialtzeko begiramena izan zuan, eta 30 oarrean ala dio:

"El texto de Condaira merecería un repaso, ya que la edición es claramente imperfecta; así, en la pág. 258, Marco Aurelio y Cleopatra están convertidos en Mario A. y Elio Patra, etc. Compárense las diferencias que se observan entre el texto original de la carta-prólogo de Larramendi a Mendiburu (1747) y el trozo copiado en Condaira; junto a retoques imputables a Iztueta, faltan algunas palabras indispensables y hay

de toda la historia guipuzcoana. Tarareando en su vejez estrofas, quizá con la satisfacción previsible de que el pueblo supiera historia guipuzcoana en verso. No se cumplió su deseo, pero aquí están.

Al igual que con los versos compuestos en su juventud, que después fue perfeccionando —y una prueba de ello bien patente ofrecemos al lector en las dedicadas a las autoridades al final de su libro de danzas—, le ocurre en algunas de su "Condaira".

En los libros del Ayuntamiento de Zaldivia se recoge un decreto (1) sobre cabras y viveros en 7 de enero de 1799 que había de leerse desde el púlpito en la parroquia y en el que se ordenaba que las cabras que fueren sorprendidas en alguna heredad, debían ser exterminadas. El conocimiento de este decreto empujó a Iztueta a componer los versos que después incluyó en su historia. A ello alude cuando dice: **"Auntzac ascori ematen dio bicia, / berari ipiñi aren iltceco sententia"**.

Podrá comprobar el lector que las sustanciosas y variadas estrofas, perfectamente torneadas, en ese largo recorrido que hace Iztueta por recoger las excelencias de la provincia, constituyen un apasionado y sostenido canto, un apretado y bello ramo de flores ofrendado a Guipuzcoa:

**Provinciaco gende leial ta arguia,
maite dezutelaco ceuen sort-erria;
ezquiñitzen dizutet euscaraz jarria,
Ama Guipuzcoaren bicitza garbia (2).**

Se hacía necesario recoger y engarzar estas perlas, sin separación unas de otras para una lectura continuada, tal como presentamos al lector, acompañadas del título del capítulo al que responden.

(1) 31 de agosto de 1798. Por decreto de la junta quinta de las generales celebradas en la N. y L. villa de Zarauz por julio próximo del año pasado por el que se manda el exterminio de yeguas y cabras y dijeron súplica al Sr. Vicario de esta parroquia a fin de que sirva de hacerlo desde el púlpito.

(2) A una reunión sobre historia de nuestro país, que organizó Haritschelhar en la Universidad de Burdeos, presentó L. Michelena un trabajo con el título de "Iztueta, testigo político de su época" y que el autor tuvo la amabilidad de enviarnos. En la nota 30 de este trabajo escribe así:

El texto de Condaira... merecería un repaso, ya que la edición es claramente imperfecta; así, en la p. 258 Marco Aurelio y Cleopatra están convertidos en Mario A. y Elio Patra, etc. Compárense las diferencias que se observan entre el texto original de la carta-prólogo de Larramendi a Mendiburu (1747) y el trozo copiado en Condaira; junto a retoques imputables a Iztueta, faltan algunas palabras indispensables y hay

otras erratas. Por otra parte, la página final del primer capítulo del ms. de la *Historia de Guipúzcoa* cuyo facsímil da Garmendia no coincide más que en líneas generales con lo que se imprimió en 1847".

Emen dakarzkiten bertso aukerak, ez daude artuta, Donostia'ko Diputazio edo Aldun-Elxean dagon eskuz idatzitako liburutik; Bilbao'n, Iztueta'ren irugarren emaztearen ondorengoak diran orri batzuetatik baizik. Eta onela diote:

"Guipuzcoatar prestu arguiac,
ona emen Euscaraz jarriac:
zuen guraso maitagarriac,
eguindaco azaña andiac.
Iracurri beraz
gogoz, ta arretaz
Ama onaren biotza osoa
¡Gutziz garbia ta chit gozoa!
Zuen serbitzari, biotzeti,
izan ta izango ere da beti
anaya omodioz betetacoa
ceña dan
Juan Ignacio Iztueta-cod".

otras erratas. Por otra parte, la página final del primer capítulo del ms. de la *Historia de Guipúzcoa* cuyo facsímil da Garmendia no coincide más que en líneas generales con lo que se imprimió en 1847".

Claro que las estrofas que reproduzco en mi libro no responden a los originales del manuscrito de Condaira, de la Diputación de Guipúzcoa, sino a un borrador o prólogo de Condaira, de puño y letra de Iztueta y que se halla en los descendientes de la tercera mujer en Bilbao.

"Guipuzcoatar prestu arguiac,
ona emen Euscaraz jarriac:
zuen guraso maitagarriac,
eguindaco azaña andiac.
Iracurri beraz
gogoz, ta arretaz
Ama onaren biotza osoa
¡Gutziz garbia ta chit gozoa!
Zuen serbitzari, biotzeti,
izan ta izango ere da beti
anaya omodioz betetacoa
ceña dan
Juan Ignacio Iztueta-cod".

1) VILAFRANCA-CO ERRI

1

Villafranca-co erri
 prestu ta leyala
 ba daquigu guztioe
 Guipuzcoan dala:
 ango iru galairi
 iñolaz al bada
 sei edo zazpi verso
 bear diztet para.

2

Bata apez dago ta
 besteac ezcongai
 gauza charric ayentzat
 ez nuque esan nai:
 batetic cintzo dira,
 bestetic chit alai
 alcargana batutcen
 dira aste ta jai.

3

Erdaraz tertulia
 euscaraz ballera,
 au izango da nere
 bersoen sarrera;
 orain lau illabete
 asi zuten bera
 amar libra candela
 arguitan erre da.

4

Sarobe irurquia
 Sel Triunvirato
 eman zayon izena
 ez baitu giraco:
 gaurcoa igaro ta
 prest dago bigarco
 ongui anayatuac
 beti daudelaco

5

Sei ta erdietatic
 zortzirac artean
 egoten dira berac
 atseguin batean:
 iracurri, jolastu
 cantatcen paquean
 candela ifiñiric
 bonbilla batean.

6

Jarriac dauzcate prest
 beti iru silla
 guela artan besteric
 ez diteque billa:
 oec dituztelaco
 berentzaco diña
 gueyago ez jarceco
 artu zuten griña.

7

Urte ascoz dedilla
 ballera au bici
 gauza ona beñere
 ezta bear utci:
 oraindaño izan da
 orrelaco guichi
 guizon prestu danari
 ez ateric ichi.

2) VILAFRANCATAR JAUN PRESTU

Villafrancatar Jaun prestu
erri-eramanzalleac,
ez izan zuen goy-zaleac;
malla oetan arra aztu
gutiziak ¡Ez beldurtul
Laga amodio zuenquoiaiy,
gustien onari jarray;
artaco zaute abeac,
eguiñak gure jabeac;
egon sendo, zuzen ta ernay.

Iztueta jaunak 1832 urtean Villafranka-ko erriko-etxentzat eta bere enkarguz euskeraz ipiñi zituan Gómez Manrique-ren bertsoak Toledo-ko erri-etxean eta bere atean daudenak. Erderaz onela esaten due:

"Nobles, discretos varones
que gobernáis a Toledo.
En aquestos escalones
desechad las aficiones,
codicias, amor y miedo.
Por los comunes provechos
dexad los particulares.
Pues vos hizo Dios pilares
de tan riquísimos techos,
estad firmes y derechos".

Aurrenean ipiñi ditugun Iztuetan bertsoak arkitzen dira Villafranka-ko erri-etxean burni-koi (burnizko eztenez) berunean eta arrian betirako ezarriak.

3) VIVA TOLOSACO ERRIA

1

Viva Tolosaco erria
larumbat —oro du feria,
biltcen dala det berria
Guipuzcoaren erdia.
Oi, oi, tira, tira,
Tolosan ibiltendira.

2

Zar ta gaste prestu anitz
saldu-erosian dabiltz
eta apez jaunac berriz
ase naiean eperquiz.
Oi, oi, etc.

3

Eperric onenac non diran
cale guztietatic giran
escopetarequin miran,
fidatu zaitezte nigan.
Oi, oi, etc.

4

Beguia erdi ichiric
apezac tiro uts guichi dic:
cogitzen badu biciric
mutilduco du ishillic.
Oi, oi, etc.

5

Arquitcen badu eperra
beren artean dute guerra,
endemas bada ederra,
jan bear dute berela.
Oi, oi, etc.

6

Apezac humillatzen lan da
endemas badaude edanda;
eperquiric jaten emanda
ishiltzen da ayen demanda.
Oi, oi, etc.

7

Calean eta basoan
apezak badu auzoan
eperra janari gozoan
erorico da lazoan.
Oi, oi, etc.

8

Lumatu berrian beti
eperra maingu da egoti,
edan ezquero gogoti
ardo goxo oneti.
Oi, oi, etc.

9

Eper gazte odol beroac
ez dira jatorriz gueldoac;
baño lumatzean egoac
gueyenac dira eroac.
Oi, oi, etc.

10

Ardo on ta bizcochoac
eta amorrai leunchoac
diralaco aña goishoac
nai ditu eper gaihisoa.
Oi, oi, etc.

11

Apezac nic baino obequi
gauza ona zer dan ba daqui:
churicaturic ederqui
jaten du zembait eperqui.
Oi, oi, etc.

12

Eper gaztearen chichia
coipe utsa da guztia,
odolqui leunecan bustia
chit da janari ezta.
Oi, oi, etc.

13

Agorra eta urria
eper eizeracoac dira:
orduan dute furia
ta istar mardul guria.
Oi, oi, etc.

14

Artoa eta gaztaña
ugari ba dute, baña,
eper gaztearen maña,
naigo dut arraren zaña.
Oi, oi, etc.

4) TOLOSACO GAZTERIA PRESTU LEIALAC

1845-garren urteco zaldun-ĩnote egunean,
Beren errico languin maizuac iduricatuaz, plazan eguitera dijoazen
jostallu atseguingarría.

Marcha

1	2
Zaldun-ĩnote egun gozo au Dalaco guztiz pozgarría, Jostaldiatu nai guenduque guc Maite degun jaiot-erría: Izanik bada ĩnoteria Apropos artaco jarria, Cantuz plazara gatoz danzari Gaur Tolosaco gazteria.	Guidari artu degu Gonzalez Zampanzartar ongui eguiña, Izatez chalcorra bada ere Jaquinduriaz chit abilla: Erritic errira balebilque Au bezalaco baten billa, Plazan gendeari emateco Pozquida eta atseguĩña.

Languĩnen itz-neurtuac

1	3	5
Guraiza chorrochalle Eta tonelguiña, Eracustera datoz Beren lan eguiña: Izan ezqueroztanic Merquea ta piña, Salduco da Tolosan Nai duten adiña.	Chapelaguiñarequin Pelucaquillea, Badaqui quizcurturic Edertzen illea: Laster aberasteco ¿Nolaco idea? Baldin balute beti Irabazbidea.	Zapataguiñarequin Eun colaria Gau ta egun oi dago Nequera jarria: Languintza mea dute Bañan chit garbia, Ustelac ezpadira Larru, ta aria.
2	4	6
Dendari abilla ta Arotz jaquintsuna, Badaqui Errira Etorri zaizcuna: Modara apaintzeco Auxen da fortuna, Bientzaco Tolosa Chit da lecu ona.	Ermentaria eta Perra-ĩfinlea, Bata gariñ gañecoa Bestea ohea: Ezagutuco dute Agudo, ordea, Burni ta mandoaren Machura gordea.	Pertz arabatzalle ta Chocolateguiña, Gucienean badute Oec cer eguiña: Bata necatu arren Bestea adiña, Irabacia dute Guztiz desberdiña.

Zortzicoa

1	2	3
Tolosaco Erria Guztiz anciñati, Jostaria dala chit Munduac badaqui: Doai au datorquio Bere jatorriti, Argatic gordetzendu Zintzoquio beti.	Ai au atseguĩña ta Pozquida betea! Lembaitlen datorrela Urrengo urtea: Baldin viciric bada Gonzalez maitea, Uste det nic Tolosan Pestan ibiltzea.	Gendeac deituzean Viva, eta viva, Chalcorra azcar dabil Gira eta bira: Irteten dan orduan Plazaren erdira, Zoraturic legoque Berari beguira.

4

San Juanetan ere
Tolosan Erriac,
Eguiten ditu pesta
Gogoangarriac:
Artaraco daduzca
Oituraz jarriac,
Anciña-anciñaco
Pordon-dantzariac

5) GUIPUZCOACO FUEROEN ATSEGUIN LELOAC

Zortzicoan

1	2	3
(Gipuzcoa)chit leyal (eta) maitatia, (aspald)i zun edana (amaren) titia: (ia)itzatic ceralaco euscaldun garbia, non-nai ezagunada zure jatorria.	Lau milla ta gueyago urteren buruan, Guipuzcoac badaqui jaiotza non duan: itzeguiten debanic orduco moduan, beste naciorican eztago munduan.	Zorioneco gure ama Euscalduna, seme bitore asco aci dituzuna: cedori ceralaco prestua ta ona, mundu guztiaç daqui maite zaituguna.

4

Zure itzcunz gozo ta
oitura eztiac,
gordetzen dizquitzute
seme jaquintiac:
galtzera utzi bague
cearo guztiaç,
oen bearra badu
gure Provinciac.

5

Guipuzcoaren seme
gazte eta zarrac,
cer)-nai gauzataraco
dira)-de azcarrac:
bada)-quite sapaltzen
ote e)-ta larrac,
baita) ere itzaltzen
suak e)-ta garrac.

6

Sei urteren buruan
chit nequez bildua,
beguetan daucagu
onen ispillua:
aserre bat izan da
portizqui mindua,
bañan ecusten da gaur
arras bigundua.

7

Aserreac beti du
berequin nequea,
gose, egarriz eta
izurritz betea:
alde guztietatic
dario caltea,
gure Ama maiteac
eguin du paquea.

8

Eguiquizun onetan
dudarican bague,
zure seme prestuac
necatu dirade:
atseguin andietan
arquitzen guerade,
eguin zeradelaco
Fueroaren jabe.

9

Ama Guipuzcoari
ondra ta bicia,
Fueroac gordetzen
diote gucia:
oen alde nor diran
dago ecusia,
necazaria eta
bere nagusia.

10

Echejaun prestu oec
ba daquigu berdin,
aleguiña andiac
dituztela eguin:
Guipuzcoa betico
ondo gueldi dedin,
anciñaco oitura
bere-bereaquin.

11

Beren lanac utziric
apropos Madrilla,
echejaun andizqui bi
azcar joan dira:
jatorriz dutelaco
artaraco griña,
gure Fuero maite
gozatsuen billa.

12

Etsai anitzen contra
eguin dute lana,
Guipuzcoatarrentzat
nola nai ta ala:
bata Aldamar-coa
bestea Zabala;
urte ascoz Jaincoac
bicitu ditzala.

13

Guertatu izandu da
langai au len ere,
Felipe Bost-garrena
zalaric Erregue:
gure Fuero onac
nai zituzten erre,
Zabalaren Asabac
ezbalitu gorde.

14

Esaera bat oida
gutziz anciñati,
euscaldunen artean
ez daquit cergati:
"bedarra zañeti ta
condea castati",
nere ustez ezdago
jarria aña gaizqui.

15

Eguitico onetan
izan da barrunen,
Emparango Nagusi
on Jose Manuel:
gordetzalle izan da
beti Fueroen,
Ama on Guipuzcoac
badaqui nor duen.

16

Guipuzcoaren ona
naiduten guziac,
izan ta izango dira
echenagusiac:
jatorriz diralaco
garbi ta biciaç,
maite ditu chit asco
Ama Provinciac.

17

Beren equin-al onac
aguirian daude,
beguien curretican
ezcutatu bague:
atseguin andietan
zoraturic gaude,
eguin gueradelaco
Fueroen jabe.

18

Onelaco semeac
oi dirade guichi,
artutaco lanari
ez diote utci:
esquer on andi asco
dituzte mereci,
Fuero baguetanic
esgaitetzeque bici.

19

Iritsi zaicu egun
zori-onecoa;
bici bedi luzaro
Ama Guipuzcoa:
bular gozoa du ta
zabala colcoa,
ugaz-umea ezdu
bere gogocoa.

6) EUSKERAREKIÑ EUSCILDUNEN ATSEGUIN-LELOAC

Zortzicoan (1)

1

Bucaera-naidiot
Eman obra oni,
Bai eta onoreac
Cantuz euscarari:
Icusi-ditu onez
Zembait egun-gorri:
Bañan garaitpenduric
Chit dago gaur ongui

2

Gure euscara-maite
Jakintsun eztiac,
Ayenatu nai zuten
Arrotzac guztiaç:
Iguñ badute-ere
Bera icustea,
Urteac joan arren,
Chit dago gaztea.

3

Erdaldun mingain-latzac
Orain zembait-urte,
Euscara gazteteric
Ez-baitzuten uste:
Aleguiñ aundiac
Chit equin dituzte,
Galduco-dutelaco:
Bañan ezin dute.

(1) Guipuzcoaco Dantzac, 198, 199 eta 200 orrialdetan.

4	8	12
Bere seme prestuac Ongui apiñduric, Aguertu-da euscara Aitz zuloetatic: Sasoicoa dago ta Piscorra oraindic: Ez da itzcunza bat au Berdintzen-debanic.	Beste anitzec-ere Charkeria asco, Escan izan dituzte Euscararentzaco: Batzuetan inki ta Besteetan maco, Izaturic chocoan, Egongo dalaco.	Ondoren aguertu zan Don Joakin Trajia, Naspillatu nayeac Euscara garbia: Aotan artzen zuela Naparren erria; Ustez etzuelaco Izen berekia.
5	9	13
Gozoa dalaric-da Guzizco zintzoa; Izkera guzietan Lendabizicoa: Beraren eguille zan Gure Jaungoicoa, Argatic da euscara Añ gain-gañecoa.	Mayans eta Armesto Gorputz bat eguiñic, Ari ziran euscara Puscatu eziñic: "Jo-ezac" andic eta "Jo-ezac" emendic, Moldatu baitzituen Aita Larramendic.	Gutziz gauza aundizat Trajiac esanac, Deseguindu zituen Astarloa jaunac: Añ ziraden traketsac Eta chit baldanac, Ezagutu ditzake Eroa ez danac.
6	10	14
Nagusi eta buru Dala eguiazki, Eguiñ-izan diote Issucaric aski: Erabili ere bai, Etsayac chit gaizki: Bañan oraiñ guziac Azpian daucazki.	Uste etzuten gauza Zitzayen guertatu, Etzekiten lanean Ziralaco sartu: Asi baziran-eta 3ai ayei damutu, Astiñ-aldia charrac Etzituzten artu.	Astarloaren obrac Dira agurico: Alacorican iñon Ezta nerekico: Mingaiñ latz arro zembait Astotzar lapico, Issilduco dituzte Secula betico.
7	11	15
Euscararen etsayac Dirade arguiro, Mayansekin Llorente Eta Osorio: Asmatu-arren zembait Guezur ta sesio, Ayen esker gaitzoan Gañera da igo.	Maitaro naico zuten Euscara icusi, Baldin bear bezala Balute icasi: Ezagutzen eztana Mendecatzen asi, ¿Nola naizuten bada Baza irabazi?	Mundu guzi-guzia Jakiñeam bego, Bizico da euscara Oraiñ eta guero: Beraren aundizcatzen Gogaltsu ta bero, Itzcribatzen arida Aspaldian Erro (1).

(1) Ero-ko Juan Bautista Andoaindar jakintsuaren lenbiziko liburuaren izena da "Alfabeto de la lengua primitiva de España".

16	18	20
Atera ditu onec Bi obra berriac, Esaten dituela Beretan eguiac: Ayec iracurtean Etsayen erdiac, Ezur uts eguin ditu Sabel-arrabiac.	Luma lodi zatar bat Zorrozturic gaizki, Asi zan itzcribatzen Arroturic lazki: Euscara issillitzeo Asmoetan naski, Erroncac botatzea Ezta, ordea, aski.	Naiz joan batera ta Naiz joan bestera, Non-nai aurkitutzen da Arguiro euskera: Eman bear diogu Zor zayon eskerra, Bestela gu beraren Semeac ez guera.
17	19	21
Chori buru puztu bat Eguiñic chit aundi, Etsai irten zitzayon Gure euscarari: Apez janzian zuen Izena estali, Aditu baitzituen Bereac eta bi.	Cacoa ortic eta emendic macoa, Esaten zuen zala Montuengacoa: Uste bazuen ere Zala goapoa, Astin bat artu zuen ¡Ah zer nolacoal	Euscara piztea da Erdaldunen miña, Ez dakit nondic duten Orrelaco griña: Mundu-guzian dago Sustrayac eguiña, Itzeguin oizalaco Bera chit anziña.

7) GUIPUZCOA-TARREN CONDAIRA ERROMA-TARREN DENBORAN

(oguei amarreko-aunditan)

1	2
Oguei eta sei bat urte alde Jesus baño lenagotic, etsai-gogorrac etorri-ziran gure-contra Erromatic; bildur aundiric ustez etzuen bada izango gugatic; Asmo-gaistoac contrara ziran eguiñal eguiñagatic, euskaldunac bai garailariac len eta orain ta beti	Antistio an eta Firmio an Marco Agriparekiñ, Octabiano buruzaria ere an zuten berekiñ: iru-talderi etorri-ziran lau nagusitza oyekin, banidadea arren banderan ongui zabalduarekiñ modu onetan sartu ziraden ausardi gogorrarekin.

3

Lenengo lana atiac ichi
ichasoz eta legorrez,
bañan etziran luzaro egon
arpegui eman bildurrez:
loa gabean ariña, eta
beguiac allert egunez,
bereala ziran balientiac
asi galdetzen lagunez,
aitaren seme irten ziraden
orain leitutzen degunez.

4

Gogoan gorde-leikeana da
seme orien esana;
"Erromatarrac or datozkigu
peleatzera gugana;
aal guzia biribillatu
bear degu alcar-gana
bildurric-gabe sartu curreira
gogor etsayaren-gana,
benzi-dezagun indarrarekin
onuntza aguertzen dana".

5

Uste etzala samiñdu-ziran
erromatar oyen farrac,
Guipuzcoa mendi-mutillac
ciradelaco azcarrac;
buruzariac ere etziran
orientzaco aiñ charrac,
oñak ariñac, gorputz-lirañac,
gogor berriz atzaparrac;
¡Aimbeste milla guizon mendean
gure probinzi hacarracl

6

Asi-ziraden etor-berrian
erromatarrac gogorki,
¿bost bat urtean cembat pelea
galduzituzten norc daki?
Aleguiñ asco eguin-det, baña
nic au ezin erabaki.
Guerraren gura baziran-ere
aspertu ziran ederki,
soldatu arro orgullosoac
jolastun agonagati.

7

Izu-icaren arkitzen zala
etsayaren talderia,
Octabiano-c atera zuan
erritarretan berria,
nolabait ere aguertu naiez
bere-guda galgarria,
batalla onradu bat eguin eta
batac besteri leguia,
al zan lenena bucatu zedin
Cantabriaco guerria.

8

Euskaldunaren aguintariac
ori entzutearekiñ,
eranzun zion: "Conforme guera
gu zure esanarekiñ;
iru-reun mutill escojituac
emen dauzcat nic nerekiñ,
azken-batalla nai badezute
onela eguin gurekiñ,
buruz-buruan etor zaitezte
soldadu onenarekiñ".



11.—Indalecio Bizcarrondo "Bilintx". Cuadro propiedad de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.



12.—"Cofrearen gañean jarrita / contu contari...". Kutxa, representando el "auresku", de fines del siglo XVIII. (Cortesía de D. Gonzalo Manso de Zúñiga).

Maire bas maïtatzen des maïtagaria
 Begi ederra du ta gurtiz anguria
 Dancañt yunenti
 Bañan ezin quendu des ómanti
 Anen ichuna
 Saldu abalite ^{gure} piruna
 Vamearen tnuque
 Nonc enoi faltaco el huque. Nonc mori bñ

soy amante de una amabilísima querida.
 Hemos oído bien, y muy animado.
 Estoy loco de ella, y por mas que hago,
 no puedo olvidarla. Su gentil figura
 es tal, que si fuese á vendense á peso de
 oro, no faltarian compradores.

Ogüeta lau legnar nago apante
 Bizantecan beduzcuz milloi bat
 Gurtiac ichinic
 Nai anxen ezin egon ixillie
 Beñ neganuez
 Vene maite maitecanen galdiez
 Otedan bñ
 Biotz biotz nenece conceci. Biotz bñ

Estoy reparado por la distancia de 24 le-
 -guas, con un millon de puestas inten-
 -medias, todas conadas con unlos cenosos.
 Quiero y no puedo... Ilun mis genidos;
 lloro siempre y preguntando por el
 idolo de mi alma, si acaso vive la heamo-
 -ra Conchita, la querida de mi corazón,

Egunaz angui guchi gascan illun
 conreloñic ez da nenezar iñun
 Maitea gabe
 Egim otenadim amen juñ.
 onaituzcan
 Cembair: pena nene biotzean
 dirur igans
 Maite des era ez da milagro, maite bñ

¡De día tengo luz oscura, de noche estoy en
 tinieblas!; ¡sin mi amada en ninguna pua-
 re podrá tener consuelo!; ¡cuando tenia
 que puedo yo gozarme? con unordime-
 ella ¡cuantas penas ha padecido mi
 corazón? No es nada extraño, pues la
 amo con toda mi alma.

¡Ay ay baxandaca eta tristuna!
 Vene biotz gaxoa ezin piztu da:
 Ain dago illa:
 Beñ dabit onruois billu:
 Bene artean,
 Bimeno maitecanen artean
 Onducho bico
 Pena gurtiac linaque illo. Pena bñ

¡Oh que soledad y tristeza la mía! Me
 pone como esta tan muerta, que
 no puede palpitar. Anoro siempre
 por el consuelo, dicere á si mismo: ah!
 si estubiere á lado de mi querida
 á lo menos podria morir! con esto
 acabarian todas mis penas.

1) El poeta baxandaca fue mas feliz que el padre, cuyos versos amonstos le acarrearon la muerte en la misma cancel. Faltaba talis de ella é inmediatamente dió la mano de esposa á la esposa, por quien tan apasionadamente se pinaba.

13.—Facsimil de algunas estrofas famosas de "Kontxesiri", de letra del propio Iztueta, del folleto publicado en Londres en 1825.

EUSCALDUN ANCINA ANCINACO

Ta are lendabirico etorguen

Dantra on iritzi porcarri gaitzic gabecoen.

Soñu gogoangarriac beren itz neurtu edo

VERSOAQUIN

Donostian

Ignacio Ramon Barojaren

Moldiztegián 1826 garren urtean egina

14.—Reproducción de la portada del libro de las melodías "Euscaldun Ancina Ancinaco".

9

Bear bezela cumplitu zuten
beren itz onorezcua,
señalaturic zegoan bada
batallaraco lecua;
Guipuzcoa-ren onra andiraco
zelai bat Errezillgua,
makiñaren bat erromatarrec
bizia utzitacua.
Egun beretic da erri ori
esan dan izenecua.

10

Ordu ta laurden iracun zuan
gauzak guchi gora-bera,
eta batalla beti bezela
mendi-mutillen aldera:
erromatarrec iya guztia
erori ziran lurrera.
Octabiano-c ecusirican
bere gendeen galera,
zer guertatzen-zan laister biraldu
zuan Erroma aldera.

11

Albista ori juan-da laister
an Erromaco errian,
Senadu danac erantzun zuan
guziz colera aundian:
Pelea ori irabaz dute
chit errez beren errian;
guc-ere ori eguingo degu
nai bada gueren lurrian;
guizonez guizon euskaldun oyec
etorri nai dutenian".

12

Uste gabeco eranzuera
arrokerizco orrekiñ
euskal-mutillac berotu ziran
onra-nai aundiarekiñ:
Oyarzun-en zan Jauregui-eche bat
Lartaun-en izenarekin;
ango galai-bat guari berriz
eun mendi-mutill oñakin
peleatzeco pozez juan ziran
bada danac alcarrekiñ.

13

Erroma-ondoco Tiber zeritzan
ibai-zabalen erdian,
zelai polita anche zegoan
arras lecu-ederrian;
essola-esiya zeucan eguiña
guziz arreta andian:
berreun-guizon peleatzeco
ichitu-orren erdian,
iguez-lecuric iñora ezta
etsayac berriz aldian.

14

Erromatican irten-ziraden
batallaraco lurrera;
Cantauri-tarrac arrimatuaz
ibai-aren basterrera,
beren gabarra zulatu eta
bota zuten ondarrera:
Erromatarrec ecusten zeuden
mendi-mutillen sarrera;
salto ta brinco igaro ziran
zelaichoaren gañera.

15

Erromatarrac albora ziran
etorri galdetuzera,
ea zergatic botatzen zuten
ontzi ura baztarrera:
Cantauri-tarren buruzariac
erantzun zien osterac;
lenengo lana, orain goazen
zelaian peleztera,
eta ondoren zuen gabarran
an guera beste aldera.

16

Noizbait bear da bildu ziraden
peleara alcarrekiñ:
bi aldetaco buruzariac:
eun bana guizonekin:
lizar-makillak orduco armac
puntan burni zorrotzekiñ:
biotzac salto eguingo zien
ori icustearrekin;
Erromatarrac gueyenac iltzen
lenengo golpearekin.

17

Oguei eta bat guizon ziraden
illac Cantauri-tarrari;
larogueti eta gueyago berriz
oyec Erromatarrari;
euskaldunac an irabaziric
batalla sonatu ori,
une artanche eldu zioten
etsayaren ontziari,
eta betico berendu zuten
Transtiberico lur berri.

18

Erromatarren presidentec
Senaduco itzarekiñ
euscaldun aiei au esan zien
frankeza guziarekiñ:
"alcardadean bizi nai degu
orain aurrera zuekiñ;
seme ordeco nai badezute
izan ill-arte gurekiñ,
eguingo degu guren alabac
emazte emanarekiñ".

19

Euskaldun ayec animaturic
guziac baten itzera
erantzuer-au esan zioten
jaun prestu ayei estera:
"jarriko guera zuen alabak
gure emaste izatera,
pake gozoan guerta gaitzen
gu alcarrekiñ aurrera:
anaiyatasun guziarekiñ
Erroman bizico guera".

20

Bi erri oyec paque gozoan
orduti ziran guelditu:
zer guertatu zan, orra nic esan
iñorc nai-badu aditu.
Guipuzcoa-onac bere fueroac
egundaño gorde ditu:
Probinzi onec seme leyalac
oraindaño izan ditu;
aurrera ere ala dezala
beti, dan-arte seguitu.

KONDAIRAKO BERTSOAK

Itzaurrea (X orrialdea)

Provinciaco gende leial ta arguia,
maite dezutelaco ceuen sort-erria;
ezquiñitzen dizutet euscaraz jarria,
Ama Guipuzcoaren bicitza garbia.

* * *

Guipuzcoaco Provinciaren asie-
ra noiztic eta nola dan. (Aur-
rengo zatia, 1.º capitulua, 5
orrialdea)

Tubalen etorrera chit anciñacoa
izandu zalaco ain zorionecoa,
oroituzean ere pozturic gogoa
naiterara bici da beti Guipuzcoa.

* * *

Españara lendabici etorri izan
zan itzcuntzaren errazoia (11
cap., 10 orr.)

Sinistmen osorican ezin artu oni,
euscara ezagutzen ez debanac ongui;
bañan aitortuco du gogoz eta garbi,
bera icasitzera nai debanac jarri.

* * *

Azaleco irudiña
dembora guichico diña.

* * *

Españaren icena noiztic, nondic
eta noracoa dan arguibidea.
(111 cap., 15, 16, 17, 18, 19 eta
23 orr.)

Euscarari ifinia,
ez pusca berequia,
baizic arabaquia,
eta arrotz etorquia.

* * *

Jarri ezquero beguira
arras ezagunac dira
Uriga eta Briga;
Astarloac ditu gira
nor bere Amaren titira.

* * *

Eta guc diogu dala, **Uria**.
Astarloac esaten du eguia
euscaraz campora, **Bria**
chit dala soil eta urria;
bañan Españan guztiz ugarria
eta arras Euscara garbia.

* * *

Icen oentzaco cer esanic
izango ez dutela uste det nic
urrengoentzaco ain guchi
Euskalerrian diralaco bici
ta maitatzea dutelaco mereci.

* * *

Bañan Astarloac oen toquia
arquitu izan ceban chit egoquia;
beragaitic daquigu dala, **Uria**
Españatar Euscara garbia:
eta agertu izan zala, **Bria**.

(Aurrena)

U vocalaren lecuan V berria
eta guero onen ordean B jarria.

* * *

¡O Euscara gozatsu cintzo jaquintial
Ezagun da zu bici ceraden toquia;
izan ta izango da beti maitatia,
gogoz edan debana cedorren titia.

* * *

Guipuzcoaco Provincia non ar-
quitzen dan, cembat lecu bete-
tzen duan eta bere mugac non-
dic nora ta norequin dauzcan
(Bigarren zatia, I cap., 31 eta
32 orr.)

Eguia cierto garbia
¿ez da gauza mingarria?
billatzea paperean jarria
¡baliz bezala fedeco eguia!
Guipuzcoan biltzen dan arto ta garia
ez dala bertan bear danaren erdia
eta norc daqui cembat onelaco astaqueria?
Jaquin beza mundu osoac

Guipuzcoaco lur gozoac
ematen dutela maitaro
bertan bear dana ta guelago.

* * *

Guipuzcoaco mendi gogoangar-
rien azaldurea (111 cap., 39
orr.)

Guipuzcoatar prestu cintzo ta arguiac
gogoz maitatu ondo errico mendiac;
beti izango dira guztiz naigarriac
beretan daudelaco ondasun andiac.

* * *

Ceñetan jarrico dedan Guipuz-
coan here icen euscarazcoaquin
ezagutzen diraden bera-ren ar-
guibidea (IV cap., 48 orr.)

¿Nor izango da orain esango debanic
euscarac ez debala berarren icenic?
Naita ere sinistu ezin nezaque nic
jaioco ere dala alaco quizonic.

* * *

Guipuzcoaco arrobi baliosoen
ugaritasuna eta berac ematen
dituzten arri bitore icusgarrien
doziac. (V cap., 59 orr.)

Guizon arrotzac ere gure ondragarri
aitortu izan dute argui eta garbi
Guipuzcoan dalaco arria ugari
eche ederrac non nai dirala aguiri.

* * *

Guipuzcoaco meatzeac non ta
nola eta cer guisatacoac dira-
den. (VI cap., 75 orr.)

Onembeste meatze ain toqui guichian
nola arquitzen diran gure Provincian;
engañatzen ez banaciz nere iritzian
ez dira topatuco Europa gucian.

* * *

Guipuzcoaco iturri garbi on
ugaritsuen azaldurea. (VII cap.,
109 orr.)

Guipuzcoan arquitzen diran iturriac
izan ta izango dira chit maitagarriac;
berenez direlaco osasungarriac
gain gañeco toquian daude gaur jarriac.

* * *

Guipuzcoaco ibai andien azal-
durea. (VIII cap., 124 orr.)

Orra cer escubide andi ta gozoac
lenago oicituen Ama Guipuzcoac;
maitaro izan ciran gorde ta josoac
bici ciran demporan gure gurasoac.

* * *

Guipuzcoaco baso zabal andi
eta zuditz liraiñ galant-en berri
zucen eguiazcoa. LX cap., 136
orr.)

Guipuzcoan arquitzen diraden basoac
ugariac dira chit eta erosoac;
emango lituzteque ondasun gozoac
baldin bear bezala baleude jasoac.

* * *

Guipuzcoaco mugapean bildu
oidiran garauen errazoa. (X
cap., 145 orr.)

Aberatsac dira ta gozatsu eztiac
Guipuzcoan arquitzen diran sagastiac;
gure asaba onac oparo utziac
arras maitagarriac dirade guztiac.

* * *

Matsaren doaiac (149 orr.)

Anciñaco demporan Guipuzcoan matsac
badaquigu cirala guztiz aberatsac;
bide baguez galtzera onelaco gauzac
mingarri da uztea guizonaren antzac.

* * *

Gaztañaren ontasuna eta onda-
sunac. (151 orr.)

Guipuzcoaco maizter ta eche-jabeac
ez dira alfer, nagui, ardura bagueac;
osotoro gorderic alor, ta larreac
gaztañadi galantac dauzcate pareac.

* * *

Inchaurraren etequinac. (152
orr.)

Inchaurrac izatea Errian ugari
ezquerrac zor zaiozca bertaco lurrari;
eta guichiago ez batere urrari
dicha on au Jaincoac eman cigun guri.

* * *

Ezcurren mirariac. (154 orr.)

Zuaitzac aizcorari diola beldurra
sinistatu bear da ez dala guezurra;
baldin artzen ezpada demporaz ardura,
¡Agur gure basoac ta agur ezcurra!

* * *

Baratza berarrac. (159 orr.)

Aralarco mendia izanic aiñ latza,
¿nor asico zan bertan landatutzen aza?
¡Iñori gogoratzen etzizaion gauzal
Oraiñ non arquitzen da alaco baratza?

* * *

Lore beguitangoaquin usan-be-
rar gozoac. (166 orr.)

Provinciaco aitzac dauzcate gordeac
landare ederraquin berar ta loreac;
churi, beltz, urdin, gorri, berde ta moreac
cer nai gauzataraco ¿non dira obeac?

* * *

Guipuzcoaco abere-en izaera
eta berac ematen dituzten ete-
quiñac. (XI cap., 176 orr.)

Cer nai gauza jarten da paper berrietan,
argaitic nago, bada, orain erriertan;
mundu guztiac dacuts bere beguietan
arcume asco dala gure mendietan.

* * *

Abelgorriac. (XI, 182 orr.)

Lurrac ematen daben ondasun garbia
goieneneco mallan oi dago jarria.
Izan ta izango da chit maitagarria
necazaria ongui bici dan Erria.

* * *

Zamari edo zama-abereac. (XI,
185 orr.)

Lurrari aguertzeco barrungo mamiac,
ez dirala ain onac mando ta zaldiac,
Jobellanos-ec ditu esaten eguiac,
obeac diradela belaquin, idiac.

* * *

Acienda beltzac. (XI cap., 188
orr.)

Sinistpen osoa da guizon andietan
guezurric ez dutela jarten paperetan;
bañan iñoiz arquitzen dirade benetan,
¡Andienetaco bat ona emen bertan!

* * *

Auntzac. (XI cap. 188-191 orr.)

Orain datorquit bada auntzen itz-aldia,
Bañan andizcatzea oen larru, esne, ta mamia,
Cembait guizonentzat da chit becatu andia.
Guztiac ere esan bear det nere iritzia,
Izango bada ere bazterrean utzia;
Auntzac ascori ematen dio bicia,
Berari ipini arren iltzeco sentenciac;
¿Nolacoa ordea?

Gaitzguilleric andienentzaco gordea,
 Quendaquiotea auntzai cordea,
 Suautsarequin balaz
 Egunaz ere bai ta orobat gauaz,
 Campoan dabilizan guci guciai arras.
 Da gauza jaquiña,

Auntza ere dala guizonarentzaco Jaincoac
 [eguiña;
 Batzuentzat gozoa; eta beste-entzaco samiña,
 Errapea becin ona duelaco aguiña.
 Ecin ucatu leique, bada, dituztela auntzac,
 Guztiz zorrotzac
 Aguiñaquin ortzac,
 Bañta ere errapeac
 Esnez ondo beteac.

Eta uda ta negu bazcatzen guztiz merqueac.
 Onen ugari gozoa ematen duten auntzac,
 ¿Nola utzi ditzaque necazariaren antzac?
 Baldin eguiten badute caltea,
 Ezarri musquillarequin catea,
 Artaraco ipinia dago Alcatea.
 Auntz jabeari ematen bazaio zaquelan miñ,
 Aren auntzac ez dezaque zuriqueta asco
 [equin,
 Cergaiti bera contuan egongo dan ernai, cin-
 [tzo, ta pin.

Beldurrac gordetzen debala mastia,
 ¿Esan izan cebana etzan guezurtial
 Necazariac artzen dala urriquia,
 Guciar eman daquioque erabaquia.
 Ez da, bada, ain nequeza artzea neurriac,
 Gorputz bat equingo baliraque Erriac;
 Bañan auntzen etsaiac diralaco ardiac,
 Poztu eguiten ditu oen illberriac.
 Auntzac eta basoac ezagutu izan dira beti
 Munduaren lembici bicico asierati.

¿Eta orain cergatic
 Ez degu bear auntziac
 Ez guichi ta asco?

¿Basoac galtzen dizquiugutelacol
 Utzi cizquiuguten, bada, guren gurasoac
 Chit ugari ta erosoac
 Auntzaquin basoac,

Utsaldiaric bagueco oso osoac.
 Bañan gueroztic dijuaz.
 Auntzac guichituaz,
 Eta basoac chiquituaz.
 Aec ill ta oec ebaqui
 Eguin dituztelaco ausarqui,
 Modu onetan ezin diteque basoric jaiqui.
 Eguia da landareen eritzallea dala auntzaren
 [ortza
 Eta ¿basoen illtzallea? ¿Aizcora zorrotzal
 Icatzguiña sartzen dan basoan
 Eta beraren inguruco auzoan,
 Acullu gairic ere ezta icusico guizaldi
 [osoan.
 Bañan auntzaren ausapacia izan arren
 [gacia,
 Baldin basoa arkitzen bada cerchobat
 [acia,
 Eder ta galant, berde ta mardul egongo
 [da gucia.

* * *

Ez det luceagotu nai nere esanquizuna;
 Auntz gashoai
 Eta baso goishoai,
 Jaungoicoac diela betico osasuna;
 Guipuzcoac izan dezan ugari ondasuna.

Abere basati edo lar-abereac.
 (XI cap., 195 orr.)

Lar-abere asco zan orduan erori,
 Alere sortu dira nondicbait iori;
 Calte anitz diote eguiten iñori,
 Bañan ezin diteque sendatu miñ ori.

* * *

**Guipuzcoan ezagutzen diran
 egazti eta pistie guztien arra-
 zoia. (XII cap., 201 orr.)**

Eizagana ifinten badute beguia,
 Zucen asqui artuco diote neurria;
 Dala arranoa ta naiz chanchangorria,
 Lurrera izango da plostetz eroria.

* * *

**Guipuzcoaren mugapeco itsaso
 eta ibaietan arrapatzen diran
 arrai gozo balio andicoen azal-
 duera. (XIII cap., 208 orr.)**

Bale-arrapatzalle azcar ta cintzoac
 Guipuztarrac ciraden lendabicioac;
 bide bague quenduric oei itsasoac,
 Ingueles ta Francesac dira guerozcoac.

* * *

Guipuzcoatarren erligioa cer ta nolacoa dan (Irugarren zatia. (I cap., 212 orr.)

Erligio Santua Guipuzcoatarra
Maitatzen dute anitz, gazte eta zarrac;
Doai on au emanic Jaungoico bacarrac,
Cer nai gauzataraco dirade azcarrac.

* * *

Guipuzcoaco biztanle prestuen doai griña, izaera eta eguimbi-deac. (11 cap., 219 orr.)

Provincia onetan guztiz ondrosoac
Beti izan dirade dantza ta versoac;
Iduricatuz ongui gueren gurasoac.

* * *

Guipuzcoaco biztanle bearguiletsuen languintzaric aurrenengoac. (III cap., 230 orr.)

Guipuzcoaco artzain cintzo ta arguiac
Izan ta izango dira gogoangarriac;
Maite dituztelaco oitura garbiac
Beren guraso onac anciña jarriac.

* * *

Nekazaritza noiztic eta ceren bidez asia dan. (IV cap., 236 orr.)

Gauza ascoren icen chit anciñacoac,
Maitaró gorde ditu Euscara cintzoac;
Berenez diralaco ezititsu gozoac,
Guticia andia diote auzoac.

* * *

Guipuzcoaco erri ascotan necazariac alcarren artean eguiña daucaten anaitasun pare ba-guecoaren azaldurea. (V cap., 242 orr.)

Bician ta illean Guipuzcoatarra,
Alcarri laguntzeco chit dira leialac;
Icusi dira ondo beren eguiñ-alac,
Dicha andia bait du emen bici danac.

Guipuzcoatarra plaza aguri-coetan jocatu oidituzten pillota-partidu, idi-tema eta beste apustu mueta ascoren errazoia. (VI cap., 245 orr. eta 255)

Amar jocu ta sei zeudenean
Erribera-ren copeta,
Bacirudien bacecarrela
Elurrarequin tormenta;
Elizaraño sacatzen ceban
Zortzi ontzaco pillota.

Baztandarrac itzac eder
Malmotea colcoan;
Erraz irabaci uste zuten

Partida galdutacoan,
Negarra mardul eguiten zuten
Hermanin Eliz-ondoan.

Astigarran mutil chiqui bat
Probestuaren semea
¿Non billatzen da errestoraco
Bera dan baño obea?
¡Icaraturic biraldu bait du
Naparroaco jendea!

Guipuzcoaco jende leial eta piña,
Onean goishoa da, gaitzean samiña;
Plazan egin arren norc bere aleguiña,
Alcar maitatzeco du jatorrizco griña.

* * *

Erromatarren etorrera; eta oequin Guipuzcoatarra eguin izan cituzten jazarra andien azaldurea. (VII cap., 274 orr.)

Guipuzcoaco jende Euscaldun garbia
Aurrecoetatic da zintzo ta arguia;
Erabaquiric ondo guda galgarria,
Erromatarretara izan zan jarria.

* * *

Wisigodoac, Suevoac eta Alanoac noiz ta nola etorri izan ciran Españara. (VIII cap., 276 orr.)

Naitasuna dionac jatot-erriari,
Jarraitu bear dio leialtadeari;
Dempora guztietan ishil ta aguri,
Berac gorde izan du Guipuzcoa garbi.

* * *

Arabe-en etorrera eta Godo-on ondamedia noiz eta nola izan du-zan. (IX cap., 285 orr.)

Guipuzcoac luzaro cintzoqui eta piñ
Serbitzo asco zion leialquiro eguin;
Bañan azqueneraco artzen cebala miñ,
Asperturic cegoen Nafarroarequin.

* * *

Guipuzcoaco Provincia noiz ta nola eta ceren bidez Nafarroagandic aldenduric jarri zan Gaztelaco Erregueagana. (X cap., 285 orr.)

Erregue ondraduac guizon prestu guisa
Badaquite gordetzen emandaco itza;
Legue on bidezcoac zucen badabiltza,
Izan ta izango da Españaren dicha.

* * *

Guipuzcoatarac Gorritico gaz-
telua noiz ta nola artu zuten.
(XI cap., 294 orr.)

Batalla onetaco itzbide andiac,
Historia ascotan daude ifiniac,
Utsaldiaric bague, garbiró eguiac,
Dempora berpereco guizon jaquintiac.

* * *

Tolosaco erri ernaiac bere auzo-
erri banaca batzuequin batean
Nafarroaren menpeco erri Leiza
ta Areso noiz ta nola artu izan
cituen. (XII cap., 297 orr.)

Tolosa-tar pizcorrac arin ta garboso,
Nafartarren lurean sarturic eroso;
Artu cituztelaco Leiza ta Areso,
Fama andia ceban Guipuzcoac jaso.

* * *

Guipuzcoaco Provinciac noiz ta
ceren bidez... biraldu izan zi-
tuen bi milla ta geyago bere
seme azcar ondo armatuac Por-
tugalco Erreguec ertsituric ceu-
can Burgos-co gaztelua locabe-
tzera. (XII cap., 299 orr.)

Gure Erregue Jauna
Billatu degu basoan,
Goicean eicera joana
Pozquida bete osoan,
Berac dituelaco icusi,
Batzuc ill eta bestea bici,
Portuguesac amilca iguesi.

* * *

Milla bosteun eta amabigarren
urtean Francesa ceren bidez
etorri zan Nafarroara eta Gui-
puzcoaco Provinciac eta bieta-
tic cer guisatan biraldua izan-
du zan ariñ asqui, bideac gal-
duric eta armac utcita. (XIV
cap., 307 eta 312 orr.)

Borbonec Donostia cebanean ichi,
Ez omen cerabillen arrotasun guichi;
Bañan nai cebanican etzeban iritsi,
Bostgarren egunecan joan zan iguesi.

* * *

Egoqui ezarriac zucenqui neurrian,
Guipuzcoaren armac daude aguirian,
Amabi canoi galant ondra andian,
Francesari quenduac Velate-mendian (1).

(1) Bilbao'ko paperetan onela irakurtzen degu:

Bere Escutaman ezagunda Guipuzcoa
Beti izandu dala Gudari guztizcoa;
Beguiria nola daucan escuan goititua,
Erreguec Ezpata zorrotz larrugorritua.
Gañera amabi canoi ondra andian,
Francesari quenduac Velateco mendian:
¡Ceintsuc garbiro dauden aguri aguirian!

* * *

Milla bosteun ogei ta bigarren
urtean Irun Irazun-en Francesa-
quin Aleman-en contra Guipuz-
coatarac eguidaco batalla an-
dien azaldurea (XV cap., 315
orr.)

Aleman ta Francesac alcarri jarraio,
San Marcial gañera ezin ciran igo;
¡Ah Mondieul'esana, negarra jario,
Guipuzcoatarrentzat deus etzuten balio.

* * *

Milla bosteun ogei ta laugarren
urtean eta urrenecoan Guipuz-
coarraquin France-en artean
izan ciran guertacarien azaldu-
rea. (XVI cap., 317 eta 319 orr.)

Oyarzun erretzeco eguiñic promesa,
Gauaz ishil etorri izan zan Francesa;
Bañan izanic bertan ariñ gende arteza,
Gaizqui irten citzaion orduco amesa.

* * *

Guipuzcoatarac Francesaquin
cembat aldiz buruz buru ta bat
banaca alcar disidaturic equin
izan dituzten pelea gogorren
azaldurea. (XVII cap., 321 orr.)

Etsaiari ciola portizqui eraso,
Ondra andia ceban Urbietac jaso;
Batallan chit aurrera sarturic garboso,
Francesai artu cien Erreguea preso.

* * *

Francesac eldu ciran bi aldiz onara,
Laster irabazteco pocean jazarra;
Bañan uste ez dala samintcen da farra,
Izan ezquero contra Guipuzcoatarra.

* * *

Gravelingas-co batallan guerta-
tu izan ciran joan-etorrien erra-
zoia. (XVIII cap., 325 orr.)

Gravelingas ondoan gazte eta zarrac,
Ongui ezagun ciran nor ciran azcarrac,
Oñac arin cituzten, gogor atzaparrac,
Francesac porrocatzen Guipuzcoatarac.

* * *

Milla sei eun ogei ta emezor-
tizgarren urtean Ondarribia er-
tsituric egon izandu zan egune-
taco guertacari andien errazoia.
(19 cap., 373 orr.)

Anciña anciñatic oidago jarria,
Goieneco mallan Fuenterrabia,
Jatorritic dalaco leal ta garbia,
¿Norc maitatuco ez du alaco Erria?

* * *

Milla ta zazpi eun eta emere-
tizgarren urteco guertacarien
barria. (20 cap., 377 orr.)

Guda au izan arren labur ta ariña,
ezagutua dago Francesaren griña;
ez du atzo ta egun sartutaco miña,
Guipuzcoa betico beretu eziña.

* * *

Milla zazpi eun lauroguei ta amairugarren urtean Españarequin Franciaren artean sortutaco guda zeren bidez eta nola izandu zan errazoa. (21 cap., 405 orr.)

Guipuzcoan baciran Erriac chit asco, Francesac etzebanac bururican jaso, Gogor ciotelaco beretan eraso, gorde izan ciranac garbi eta oso.

* * *

Milla zortzi eun ta zortzigarren urtean Napoleonec salduque-riaz Españan sortu zeban guda caltarquitsu bidebaquecoaren azaldurea. (22 cap., 414 orr.)

Guipuzcoaco seme leial menditarrac alcar maite dute chit, gazte eta zarrac, jatorriz diralaco prestu ta azcarrac, equin izan cituzien alaco jazarrac.

* * *

Milla zortzi eun ogeita amairugarren urtean Erregue Fernando VII'garrena Jaincoac beregana deitu zebanean, beraren anaia Carlos-ec eta alaba Isabel-ec Españaco coroiac jabetzearen gñean alcarren artean artu zuten despita andi negargarriaren azaldurea. (23 cap., 421 orr.)

Erabaqui naiean itzpidea garbi esancz eta esaten asperten ez naiz ni: mundu guzti-guztiac orain eta beti, gogoan izango du Zumalacarrequi.

* * *

Ceñetan contatzen diran Guipuzcoatarrac itsazoz sarritan eguindaco azaña gogoangarriac. (24 cap., 451 orr.)

Mendietan ez ezic itsasoan ere Guipuzcoatarrac chit azcarrac dirade: beren azañac ongui gordeac alere, urteac joan arren aguirian daude.

* * *

Gure ama on maitati Guipuzcoac bere bular gozo indartsuarequin guriro azitaco seme leial gogoangarri anitz, nor ta non jaloac eta cer gisatacoac izan diraden arguitasun garbia errien izenac abecequiro dirala. (25 cap., 509 orr.)

Guipuzcoac baditu semeac ugari jaquin izan dutenac equiten lanari: eracutsiaz garbi mundu guztitari cer-nai gaitan dirala buru ta guidari.

Non necatu badute guizon jaquintiac eman nai badituzte emengo barriac: bestec ez bezalaco doai on andiac dauzca Guipuzcoaco baztar maitatiac.

O A R R A K

1) **Villafrancaco-erri.** Idazkera ez dirudi Iztuetarena danik. Agian, "Bertso berriac" egin zituancak berak, Iztuetaren idazkiren bat idazki-aldatu zuan. Itz bat dago zalantza-koa: Irulquia? Irutquia? Arritzekoa da, **ballera** bi aldiz idaztea. **Billera** izan bear lukela, dirudi. Iztuetaren eskuz idatzia izan bazan, olakorik ezin zitekean gertatu.

3) **Viva Tolosaco erria.** Itzak, izkera ta eraikera, Iztuetarenak. "Larumbat=lareumbat". Onela deitzen dio Iztuetak larumbatari bere "Guipuzcoaco Condaira"n.

4) **Tolosaco gazteria prestu leiala.** Ederki egindako bertsoak. 1845'ko Tolosako Iñauteritarako egiñak.

5) **Guipuzcoaco fueroen atseguin leloac.** Idazkera, izkera, sentipenak eta goi-atsa, Joan Inazio Iztuetarenak.

6) **Euskerarekin euscaldunen atseguin leloac zortzicoan.** Donostian egon zan denborakoak. Mayas Llorenteri, Tragtari, Juan Bautista Errori... egiten dizkien ainbeste aipamenak, garbi asko adierazten dute.

7) **Guipuzcoatarran condaira Erroma-tarrean denboran.** Bere dantza liburuaren azkenean, Iztuetak jartzen dituan bertsoak. Garai ortan antolatuak dudik gabe, edo 1873 baiño lentreago.

8) **Gipuzcoaco condairaco bertsoac.** Len esan degun bezela, euskeraz aurreneko Gipuzkoako Kondaira dan liburu ontan, Iztuetak Zaldibi'n bizi zala sortu zituanc bertso batzuk sartu zituanc. Griña au, il arteraño izan zuan. Liburuko atalak, lau bertso-tako aapaldietan biltzen du. Bere zartzaroan, eta Iztuetarena'ko bere etxean, ikustekoa ta entzutekoa izango zan nola otz-artean kantatzen zituanc gure Joan Inazio agureak!... Utsune ta etenik gabeko irakurgai batean, aurreneko aldiz argiratzen dirala uste degu. Era ontara, askoz obeto ulertuko degu gure Iztueta, bai bertsolari bezela, bai gure erriaren abeslari bezela. Egia esan, garai artan askotan oi zan bezela, Guipuzkoaren aundi ta bikaiñtasunak puztu egiten baditu ere. Jatorrizko lana, Donosti'ko Diputazioaren Liburutegian arkitzen da.

ANOTACIONES

1) *Villafranca-co erri*. La escritura no parece ser de Iztueta. Quizá sea copia de un trabajo de éste, hecha por la misma mano de "Bertso berriac". Una palabra dudosa: *iruiquia?* *irutquia?* Sorprende que se escriba *ballera* por dos veces, cuando parece que debería ser *billera* (cosa que no se explicaría en un manuscrito de Iztueta).

3) *Viva Tolosa-co erria*. Letra, lenguaje y estilo de Iztueta. *Larumbat=lareumbat* que es como Iztueta denomina al sábado en "Guipuzcoaco condaira".

4) *Tolosaco gazteria prestu leiala*. Versos muy buenos compuestos para los Carnavales de Tolosa del año 1845. Cabe pensar que son del propio Iztueta por su estilo.

5) *Guipuzcoaco fueroen atsegin leloac*. Escritura, lenguaje, sentimientos e inspiración de Iztueta.

6) *Euskerarekin euscaldunen atsegin leloac zorticoan*. De su época de San Sebastián, como lo dan a entender las numerosas referencias a Mayans, Llorente, Tragia, Juan Bautista Erro, etc., etc.

7) *Guipuzcoa-tarren condaira Erroma-tarrean denboran*. Estrofas que coloca Iztueta al final de su libro de danzas y sin duda compuestas en esa época o un poco antes de 1823.

